

**Senekaren *Feniziar emakumeak* (1-362)
antzezlanaren euskarazko itzulpena eta oharrak**

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua
2021-2022 Ikasturtea

Ikaslea: Oihane Gurrutxaga Luengo
Tutorea: Gidor Bilbao Telletxea
Saila: Ikasketa Klasikoak

AURKIBIDEA

AUTOREA ETA OBRA	4
SENEKA ETA LITERATURA	5
SENEKA ETA <i>FENIZIAR EMAKUMEAK</i>	6
Tragediak.....	6
<i>Feniziar emakumeak</i>	7
SENEKA ETA SUIZIDIOA.....	8
ITZULPEN PROZESUA	9
IZENBURUA, GENEROA ETA IZEN BEREZIAK.....	11
ERREFERENTZIA MITOLOGIKOAK	13
LEXIKOA.....	16
NATURALITASUNA ETA FRASEOLOGIA.....	20
PARE BAT GRAMATIKA KONTU	21
EPILOGOA	25
ITZULPENA	31
ERREFERENTZIA MITOLOGIKOAK	44
BIBLIOGRAFIA	51

AUTOREA ETA OBRA

Patu jakin batera kondenatuta al gaude? Ba al dugu eraginik geroan? Erabakiak hartzeko gai al gara? Edo patuaren esku utzi behar dugu etorkizuna? Besoak gurutzatu eta gertatuko denaren esperoan egoteak ba al du zentzurik? Gizabanako oro al gara zorigaiztoko? Zorte ona existitzen al da? Eta etengabeko zorigaiztoak ekiditea gure esku al dago? Luzio Anneo Seneka (Kordoba, K.a. 4 - Erroma, K.o. 65) filosofo estoikoari galdetzeko adinako zalantzak dira aurreko horiek guztiak. Mendez mende gudan iltzaturik dauden zalantzak. Senekarentzat, ordea, erantzun bakarra egongo litzateke denerako: jakinduria, izan ere, Clay Newmanen liburu ezagunaren izenburuak iradokitzen duen moduan, Senekaren prozac-a beti izan zen jakinduria (Newman 2014: 38).

Jakinduriak defini lezake, beraz, Seneka, Erromako senatuko bere garaiko gizon jakintsuena zela esateraino. Baina, nola neurtu jakinduria? Kontatzen dutenez, behin Sokratesi berari esan omen zioten bera zela Atenasko gizon jakintsuena, eta berak, inguruko beste gizon ustez jantziengana jo zuen jakinduria zer ote zen galdezka. Inork ez zuen erantzuten jakin, eta horrela ondorioztatu zuen esaldi famatuan bildurikoa: «ezer ez dakit, ezer ez dakidala baizik» (Gaarder 1991: 87). Nolabait badute bi filosofo hauek elkarren artean antzekotasunik, zikuta hartuta egin baitzuten beren buruaz beste, azken unera arte euren ideiei tinko lotuta.

Kordoban jaio bazen ere, oso umetan, bi edo hiru urte zituela, joan zen Seneka Erromara. Eskolan pasa zituen hurrengo urteak eta 13 urte bete zituenean *gramaticus* batekin jarraitu zuen ikasten. Politikan murgiltzeko asmoa umetatik izan bide zuenez, erretorika eskoletara egin zuen jauzi eta filosofian ere murgildu zen pixkanaka.

Hainbat teoria eta mugimendurekin bat egin zuen, bere asmo eta ideiekin bat zetorren ildoak aurkitu arte: pitagorismotik hasi eta epikureismora, Demetrioren laguntasunak bultzatuta ziniko ere izan zen, azkenean estoizismoa aurkitu zuen arte.

Politikarekin estuki lotuta egon izan den pentsaera da estoizismoarena, eta Erroman eta orokorrean gizarte erromatarrean bere lekua bilatu zuen pentsaera honek. Greziar kultura eta filosofia erromatarren artean zabaltzeko giltza ere izan zen, eta horren adibide dira Marko Aurelio enperadorea edota Zizeron filosofo eta politikoak, besteak beste. Humanismoaren defendatzaile sutsuak ziren denak; Senekak esan zuen gisara, *homo homini sacra res* ‘gizakia sakratua da gizakiarentzat’.

Patuaren inguruan ere izan zuten zeresana. Pentsalari horien arabera, gertatzen zaigun orok geure patua du arrazoi, hots, ez da ezer ustekabea gertatzen, patu jakin bati loturik gaudelako baizik.

Senekaren patuak politikara bideratua al zeukan? Erretorika ikasketak amaitu eta senatuan sartu zen. Hala ere, erbestearen gazi-goza ere bizi izan zuen Korsikan, Klaudio enperadoreak Erromatik bota zuenean. Filosofia eta naturaren inguruan gogoeta egiteko eta idazteko balio izan zion filosofoari egonaldi hark.

Dena den, urte batzuen buruan, berriro utzi zioten Erroman sartzen eta pretore ere izendatu zuten: Neron enperadore izateko prestatzea zen bere egitekoa. Neronek soilik 17 urte zituela hil zen bere aita eta Seneka izan zuen bere politika-orientatzaile nagusi,

Burrorekin batera. Bizi osoa Erromako politikari eskaini ostean jubilatu zen Seneka, eta filosofia-lan ugari idazteari ekin zion. K.o. 64. urtean sute famatuak erre zuen erromatarren hiriburu preziatua. Hiritarrak nazkatuta zeuden enperadorearen gobernatzeko moduarekin eta Erroma berritzen erabili zuen diru kantitate horrekin eta enperadorea boteretik kentzeko ahaleginetan hasi ziren. Neronen aburuz, Seneka zen plan maltzur horren buru eta hiltzera kondenatu zuen pentsalaria, baina hark bere buruaz beste egin zuen, enperadoreari bera hiltzeko luxu hori utzi gabe.

SENEKA ETA LITERATURA

Asko dira pentsalari erromatarrek idatzirik utzi zizkigun lanak. Prosan idatzitako hausnarketa filosofikoak heldu zaizkigu gehienbat, etika, filosofia eta boterearen inguruko pentsamendu propioen lekuko gordinak. Azpimarratzekoa da, besteak beste, *Epistulae morales ad Lucilium*, euskaraz *Luziliorentzako gutun moralak*. Baina ezin dira ahaztu *Dialogi* (Elkarrizketak) ospetsuak: *De vita beata* (Bizitza zoriontsuaz), *De tranquillitate animi* (Arimaren lasaitasunaz), *De brevitae vitae* (Bizitzaren laburtasunaz), *De ira* (Suminduraz), *De otio* (Astialdiaz), *Consolationes* (Bihotz-aringarriak), *Ad Marciam* (Martziarentzat), *Ad Polybium* (Polibiorentzat), *Ad Helviam* (Helviarentzat). Edo *De clementia* (Errukitasunaz), *De beneficiis* (Ontarteez) eta *Naturales Quaestiones* (Izadi-kontuak). Eta, lan politikoen artean, *Apocolocyntosis* edo *Ludus de morte Claudii* edo *Divi Claudii Apotheosis per saturam* (Kalabaza bihurtzea edo Klaudioren heriotzari buruzko jolasa edo Klaudio jainkozkoren apoteosia satiraz).

Gauza jakina da geure iritzia zabaltzeko eta ezagutarazteko mila bide daudela eta literaturak bidezidor asko dituela, bat edo beste aukeratu eta haietan barrena galtzeko. Aukera zabal horietako bat aukeratu zuen Senekak: tragedia. Hala, hark idatzirikoz zazpi antzezlan oso heldu zaizkigu: *Herkules*, *Troiako emakumeak*, *Medea*, *Fedra*, *Edipo* eta *Agamemnon*; baita amaitu gabeko beste bat ere: *Emakume feniziarrak*.

Senekak estoizismoa erakusten digu obraz obra, baina pertsonaiak eta haien patua ez ditu aldatzen, funtsean mitoak baitira. Data zehatzik ez dugun arren, adituek hainbat iritzi ezberdin plazaratu dituzte. Batzuek uste dute Korsikan erbestean zegoen denboran idatzitakoak direla; beste batzuen aburuz, ordea, Neron gazteari idatziak lirateke, haurra zela hari balore estoikoak irakasteko asmotan.

Baina nola heldu zion idazketari? Zein eredu izan zituen tragediak idazten hasi aurretik? Manuel Da Fonseca poeta portugaldarrak esan zuen gisan, *O parecimento de um escritor sem influências é antidialéctico por natureza* (Manuel da Fonseca *apud* Simoes 2011: 9). Eredu greziarrak izan ziren Senekaren itsasargi. Sofokles, Euripides eta beste egile greko batzuek idatzitako tragedia, fabula edota mitoak izan ziren *Emakume feniziarrak*, *Medea* eta beste tragedien eredu. Hala ere, erromatar tradizioa ere kontuan hartu zuen beti. Erromatar jendea zen bere obren hartzaile eta beharrezkoak diren aldaketak egingo ditu mitoak azaltzean. Lareak eta maneak erromatar jainkoak txertatu zituen kontakizunetan, esaterako.

SENEKA ETA FENIZIAR EMAKUMEAK¹

*Aitonaren suhi eta aitaren etsai,
seme-alaben anai eta anaien aita ere bai.
Erditze bakarrean izan zituen amonak
senarraren seme-alabak eta bere bilobak.
(Ediporen hitzak.
Seneka, *Feniziar emakumeak* 134 -138).*

*Gauza hauek ez ziren sekula jazo, baina beti egongo dira.
(Saturnino Sekundo Salutio,
Tractatus de diis et mundo 4, 9).*

Tragediak

Grezian dute jaioterria tragediek eta euren sorrera-sorreratik egon dira estuki lotuta politikarekin eta herritarren erlijioarekin. Erromatarrengana heldu zenerako generoak politika zantzua apur bat galdua bazuen ere, mitoak txertatuz, tragediak nolabait estatu berri bat birformulatzeko lehen urratsak izan ziren. Era horretan, Senekak eta bere garaikideek Euripides eta Sofokles greziarren tragedien bertsioak erabili zituzten haien ideiak herritarrengana hurbiltzeko.

Greziar tragediek honako egitura izan ohi zuten beti: hitzaurre moduko bat hasieran, pertsonaien egoera labur azalduz, gertakarien erdigunea zetorren gero, pertsonaiak aldatuko zituen arazoa nolabait, eta, azkenik, izandako arazo horren konponbidea heltzen zen, normaltasunera itzultzeko aukera. Senekak orokorrean errespetatu zuen egitura hori. Horretarako, bost ekitalditan banatu ohi zituen tragediak, eta ekitaldi horien artean korua egon ohi zen entzuleei informazio gehiago eskainiz. Gainera, ekitaldi batetik bestera, gai aldaketa batek ematen zien hasiera agerraldi berriei.

Oro har, antzeko egitura errepikatzen zen Senekaren lanetan. Greziar tragedietan gertatzen zen bezala, hitzaurre bat izaten zuten beti. Pertsonaia batek ematen zion hasiera antzezlanari. Senekaren kasuan, mito nagusiak irakurle-entzule-ikusleak ezagutzen zituenek, *in medias res* azaldu ohi zuen pertsonaien egoera. Horrez gain, hitzaurrea ez zen zuzenean publikoari zuzentzen, antzerkiaren dramatismo guztia galduko baitzukeen horrela. Entzuleak antzezlanean sartzeko eta klima egokia sortzeko helburuarekin idazten ziren sarrera horiek. Berrikuntza handia izan zen hau mendebaldeko antzerkigintzan. Hasierako monologo honi elkarrizketa batek ematen zion jarraipena eta pixkanaka pixkanaka aurrera egiten zuen tragediak. Euripidesen eta Sofoklesen urratsak jarraitu zituen Senekak honetan ere. Pertsonaiei dagokienez, pasioei oso lotuta ageri ohi zaizkigu autore erromatarren tragedietan; heroi positiboak izan beharrean, arazoak sortzen dituzte pertsonaiek eta euren mitoa antzezten dute drama puntu bat erantsiz. Azkenik, korua da tragedietan falta ezin daitekeen osagaia. Grezian garrantzia handia zuten koruek; pertsonaia kolektibo bat zen korua denentzat. Hala ere, pixkanaka protagonismo hori galtzen joan zen. Behin tragediak Erroman finkatu zirenean, koruek berriro jo zuten goia. Bertso-lerrotan idatzitako abesti modukoak ziren, eta, Greziako tragedien aldean, edukiari

¹ Latinezko testua aipatzeko *The Latin Library* bildumako testua erabili dut, *Phoen.* [+ bertso-lerroa] laburdura erabilita. Zubi-testu gisa erabili ditudan itzulpenak aipatzeko ere laburdura hori erabili dut, itzultzailearen deitura eta urtea gehituta. Nire itzulpena aipatzeko, *FenEm.* [+ bertso-lerroa] laburdura erabili dut.

dagokionez goi mailako testuak izaten ziren. Azkenik, bada tragedia den-denetan errepikatzen den beste alderdi bat: iruzur edota hanka-sartze bat egiten du pertsonaiaren batek. Ediporen kasuan, adibidez, Esfingearen enigma asmatu bazuen ere, patuak berak engainatu zuen Edipo, zoritxarreko patu batek.

Feniziar emakumeak

Obraren laburpena

Edipok, saiatu den arren bere patua aldatu ezin izan duela ikusita —aita hil du, amarekin ezkondu da eta seme-alabak izan dituzte elkarrekin—, begiak bere lekuetatik atera eta Tebastik ihes egingo du, Ziteron mendiaren magalean hiltzeko asmoarekin. Antigona alabak, kostata, baina lortuko du aitaren gidari izatea eta aitak bere buruaz beste ez egitea. Hala ere, bitarte horretan, Antigonaren bi anaiak, Eteokles eta Polinizes, Tebasen geratuko dira hiriaren boterea zeinen eskutan utzi eztabaidatzen. Boterea txandakatzea adostu zuten arren, Eteoklesekin ez dio txanda eman nahi anaiari. Polinizesek, anaiaren ezezkoa ikusita, Adrasto Argosko erregeari laguntza eskatuko dio —bere alabarekin ezkondu baitago— eta honek tropak bidaliko ditu Tebasera, gerra baten bidez boterea eskuratzeko asmoarekin. Jokasta Tebasen geldituko da, bi anaien arteko gerra saihesteko ahaleginetan.

Egitura

Aurretik azaldu dudana bezala, tragedia grekoetan ohikoa izaten zen narratzailearen papera koru batek egitea. Hala ere, Senekaren obra honetan ez dago koruaren presentziarik eta ez zaio aipamenik egiten. Kontuan eduki beharrekoa da, hain zuzen Euripidesen tragediaren izenburua, *Feniziar emakumeak*, iritzi hedatuaren arabera emakume feniziarrez osaturiko koruak eman diolako, Tebasen hiria Kadmok sortu baitzuen eta Kadmo jaiotzez feniziarra baitzen. Baina guregana iritsi den zatian koru hori agertzen ez denez, beste batzuen ustez (Sapota & Slomak 2020), Jokasta eta Antigona dira tragediari izenburua ematen dioten feniziar emakumeak.

Bi zatitan dago obra banatuta: lehenengo erdian (1-362 bertso lerroak), hain zuzen guk euskaratu dugun zatian, Edipo eta Antigona ditugu protagonista. Patuari eta suizidioari buruzko monologoz osaturiko elkarrizketa luze baten ondoren, Antigonak aita konbentzitzea lortzen du, bere buruaz beste ez egiteko eta alabari bere gidari izaten uzteko. Bigarren erdia (363-664 bertso-lerroak), ordea, Jokastak bi semeen arteko gerra saihesteko egiten duen ahaleginaren ispilu da.

Amaitzeko, agerikoa da Seneka erretorika ikasketak egindakoa zela. Estilo manierista eta barrokoa nahastuz, erretorika kutsua darie tragedia guztiei. Leonor Pérezek hitzetan, «antzerkian hitza bera da ekintza» (Pérez 2012: 54). Bestalde, gai nagusien artean, aipaturiko patuak eta suizidioak gain, azpimarratzekoa da pasioaren garrantzia. Pertsonaiek patua aldatu ezin dutenez, jakinaren gainean daudela erakusteaz gain, euren pasioak ere agerian geratzen dira uneoro.

Metrikari dagokionez, bertso-lerrotan (trimetro janbikotan) idatzita dago *Feniziar emakumeak* obra. Aurreragoko atal batean berriro erreferentzia egingo diodan arren, euskarazko itzulpenean izan dudana arazo nagusietako bat horixe izan da: jatorrizkoaren musikaltasuna eta erritmoa euskaraz transmititzen saiatzea.

SENEKA ETA SUIZIDIOA

Itzuli dugun atalean (*Phoen.* 1-362) suizidioari buruzko gogoetak eta eztabaidak duen garrantzia kontuan izanik, Senekak, estoikoa izanda, Ediporen edo orokorrean suizidioaren inguruan esango lukeen ikuspegiaren azalpen labur bat erantsi dut.

Hobe al da etorkizuna jakitea? Aukera izatekotan, irakurriko al genuke nora garamatzen patuak? Orakuluak bagenitu, esaterako, galdetuko al genieke nola hilko garen?

Garbi geratu da Edipok patu beldurgarria zuela zain bera jaio aurretik. Hala ere, zortea ere izan zuela esan genezake, baserritar batek mendian aurkitu baitzuen, bertan babesgabe hil beharrean. Agian ez zuen zorte on hori aprobetxatzen jakin? Orakuluarengana jo zuen eta zurrumurruei kasu egin, berak sinesten zuena defenditu beharrean...

Zein irakaspen ateratu nahi izan zuen Senekak mito horretatik? Agian ez diogu benetan sinesten dugunari buelta gehiegi eman behar, ez dugu zertan saiatu behar geure etorkizuna aurreratzen, eta orainean bizi behar dugu, etorkizunera begira bizi beharrean. Beraz, etorkizuna kezka hutsa da, eta hala izan da beti gizakiarentzat, patua geure eskutan dugula sinestearen kezka itotzen baikaitu. Senekak, estoiko gisara, esango liguke gizakioi ezinezko zaigula geure patua aldatzea, mitoetatik ikasi behar dugula, ahal den neurrian izaki jakintsu izateko, jakintsu izate horrek salbatuko baikaitu, zerbaitek salbatzekotan. Dena den, geure ideietan sinistu behar dugu, ondo ikasi badugu noski: pentsalarien testuak irakurri, hausnartu, mitoetatik behar den bezala ikasi... Agian Edipok orakuluarengana jo izan ez balu, horrekin kezkatu beharrean bere burua esaterako erretorikan edo politikan edo filosofian trebatu izan balu, agian uko egingo ziokeen bere patuari.

Eta beraz, norberaren ideia horiengatik norbere buruaz beste egitea zilegi al da Senekarentzat? Urtez urte ikasi eta landu diren ideia preziatu guzti horiengatik hiltzea jakintsua da, norberarengan sinesten bada? Hori erakusten al digu, funtsean Senekaren biografiak berak ere? Amaierako egunera arte izan al zen estoiko?

ITZULPEN PROZESUA

Yves Bonnefoy poeta frantsesak elkarrizketa batean erantzun zuen hemen bildu duguna:

Ez naiz poesia itzuli ezin dela esango duen lehenengoa. Baina poema bat itzuli nahia jada bada poemaren parte hartzeko modu bat, eta agian bakarren batek lortu dezake bere hizkuntzan antzeko zerbait sortzea. Oinarrizkoa irudikeria jakin batzuen atzetik ez ibiltzea da; errima mantentzen ahalegintzea eta jatorrizko poemaren prosodia mantentzen saiatzea, besteak beste. (M. Belmonte et al. 2020: 1893)²

Fideltasuna izan liteke itzultzaile batek izan dezakeen desafio gorena, hamaika erailketa burutu dituen hiltzailea aurkitzea baino erronka handiagoa. Eta poesia itzultzeak badu fideltasunaren kate horretan gehiegi korapilatu eta bertan behera uzteko arriskua. Antzerkiak ere bai; ahoz gora irakurtzeko den aldetik, are gehiago. Bestela, zergatik dira haurren ipuinak hain laburrak? Zergatik dituzte esaldi labur eta garbiak? Entzute soilarekin uler ditzaten, mezua zuzen eta garbi hel dadin. Luzera da garrantzitsua azken batean; luzera eta gaia ere bai, noski; eta publikoa. Gaur egun ia egunero ikusten ditugu telesailak eta ohituta gaude hogeita minutu laburretan hamaika pertsonaia ezagutu eta telesaileko dramaren kateetan barna nahaspilatzen. Ohituta gaude familia arteko tirabirak eta bihotz nahastuen goitibeherak ikustera. Baina, hala ere, gaur egun gai izango al ginateke Antzinatean kokatutako gaien inguruko telesail bat lehenengo begiratuan ulertzeko? Aspaldiko obra bat itzultzeak hori du erronka: gaur egungo publikoa. Hizkuntza aldetik moldatu egin beharko luke itzultzaileak lana eta azalpen gehigarriak gehitu nola edo hala...

Ez da beharrezkoa hitzez hitzeko baliokidetzaz zehatzik egitea, mezuaren muina harrapatzea eta konbentzimenduz ematea baizik. Hara-hona eta erdi galduta ibiliko naiz testuan barna, baina horrelaxe lortzen dut itzulpena egitea. Emaitzara iristeko bidea emaitza bera baino askoz interesgarriagoa da! (Filip Lobodzinski, *apud* Paya 2021: 337).

Antzerki obra bat izan dut esku artean, aspaldiko obra bat, baina gaur egungo publikoa buruan. Bertso-txapelketetara joaten gara eta azken errepikak kantatzen ditugu, errimak asmatzen ahalegintzen gara eta kantuan dabilen edozein bertsolari baino azkarragoak sentitzen. Baina, zein tonu beharko luke bertso-lerrotan idatzitako antzerki obra batek? Publikoak nola erantzungo luke, orduan? Fideltasunaren lehen helduleku izan ditut bertso-lerroak. Bertso-lerroak erabili ditut obra guztian zehar, Senekak egin zuen bezalaxe, greziarrek tragediak sortzean egiten zuten era berean. Azken finean, itzultzailea bi testuren zubigile da, eta ondo egindako zimentua errespetatu behar du amaierako laginak; Jostein Gaarder norvegiar idazleak Platonen ideien mundua azaltzeko erabiltzen

² Autorearen itzulpena. Hau da jatorrizko argitaratua, lehenengo elkarrizketa frantsesez izan bazen ere: «No seré el primero en decir que la poesía es intraducible. Pero el deseo de traducir un poema ya es una forma de participar en él, y tal vez uno pueda crear algo similar en su propio idioma. Lo esencial es no perseguir ciertos espejismos, como tratar de preservar la rima y la prosodia del poema original.»

dituen hitzak parafraseatuz, hasierako galleten masa bera eduki gabe ere, jatorrizkoaren esentzia bera izan behar du xede-testuak (Gaarder 1991: 106-107). Horregatik iruditzen zitzaidan bertso-lerroena hautu denetan beharrezkoena. Xabier Payak duela gutxi argitaratu duen *Bob Dylan 100 kantu* liburuan adierazi zuen honako hau:

Dylanen poesia musika da; bere hitzek melodia eta erritmoa dute. Bere testuek zentzua galtzen dute soinu-banda isiltzen bazaie, eta goraki kantatzean baino ez dute erabateko zentzurik (Paya 2021: 340).

Ahoz gora interpretatuko duten testu bat itzultzen edo idazten dugunean estrategia berezi batzuk behar ditugu. Jendearengana errazago helduko da mezua esaldi motzak erabilia, esaterako. Bertso-lerroen bidez erraza da esaldia bitan zatitzea, baina nola eman, orduan, tonu naturala eta erritmo egokiena? Errimak, Belmontek zioen moduan, ezin dira helburu izan, baina lagungarri izan daitezke erritmoa markatzeko:

Aitonaren suhi eta aitaren etsai,
seme-alaben anai eta anaien aita ere bai.
Erditze bakarrean izan zituen amonak
senarraren seme-alabak eta bere bilobak.

(*FenEm.* 134 -138).

Errimek aukera ematen digute jolasteko, ideiei indarra emateko nahiz testuaren zati jakin bati erritmoa emateko, musikaltasuna eransten diote errezitaldi edo antzezpen orori. Publikoak errazago gordeko ditu buruan errimadun eta tonu berezidun esaldiak, errazago lekualdatuko da antzinako Grezia edo Erromara, errazago kokatuko du istorioaren nondik norakoa, eta garrantzitsuena, obrak ez du bere esentzia guztiz galduko. Hala ere, antzerki eta kantuen itzulpenak ez du xede argia beti: printzipioz, liburua eskuratzen duen gehiengoak irakurketa isila bilatuko du, paperetik irtengo ez den literatura (Paya 2021: 341). Gradu amaierako lanerako egindako itzulpena denez eskuartean dudana, badakit inork ez duela jendaurrean antzeztuko, baina hori hala izanda ere, Payaren hitzak berriro gogora ekarriz, «Hortaz, euskarazko bertsio hauetan ingelesezkoen hoskidetasunari eusten ahalegindu gara, eta hori posible izan ez den kasuetan, gutxienez, soinuaren garrantziari nola edo hala keinu egiten ahalegindu gara» (Paya 2021: 341).

«Euskalduna, jaiotzetik da itzultzaile» entzun nion behin Irene Arrarats BERRIAko itzultzaile eta egunkari horretako euskara arloko buruari, unibertsitatera etorri zen batean. Garbi dago bizi dugun diglosia egoerak uneoro esan beharrekoa itzultzera garamatzala, baina aldi berean, egunerokotasun horretatik aparte, euskarak ere behar du bultzada: euskal literatura itzuliak, hain zuzen ere. Eta hor hutsune bat dagoela onartu behar dugu nahitaez. Hutsune bat dagoela jakin beharra dugu, eta hutsune hori hainbat esparrutan islatzen da. Lan oparoak ditugu euskaraz, lan txukunak, sakonak, beharrezkoak. Hori badakigu, eta iruditzen zait askotan lau haizetara esaten dugula eskuartean ditugun lan hauek mundura zabaldu beharra dugula: baina benetan da hain garrantzitsua txikitasun hori hemen? Ez al da garrantzitsuagoa bizi dugun egoera diglosiko honetaz konturatzea? Ingelesezko literaturara jotzen badugu, nabaritu baino, are gehiago, jakin badakigu oinarri

sendoa duela, mota zein garai eta estilo guztietako lanak aurkituko ditugula, garai eta egile desberdinetan desberdinenak irakurtzeko aukera izango dugula. Tradizio bat dagoela. Tradizio luzea dago gaztelaniaz edo frantsesez ere, jakina. Eta euskarak? Euskarak izan du tradizio idatzirik? Iban Zalduren hitzetan, «itzulpenen kalitatearen eta kantitatearen hazkundera da euskarari gertatu zaion gauza onenetako bat» (Iban Zaldúa, *apud* Lertxundi 2019: 73).

Lan honetan, Seneka erromatar filosofo eta antzerkigilearen *Feniziar emakumeak* obraren lehen zatia itzuli dut (1-362), klasikoak ere beharrezko dituelako euskal irakurleak euskaraz.

Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan ez dut latineko klaserik izan. Egia da Batxilergoan jaso nituela klase batzuk, baina itzultzen genituen testuek ez zuten zerikusirik lan honetarako itzuli dudanarekin. Dena den, beti gustatu izan zait ikaragarri latina eta urrutiagotik izanda ere, heldu egin nahi nion berriro ere latinetik itzultzeari. Horretarako, alde batetik Gradu Amaierako Lanean zehar tutore izan dudana Gidor Bilbao Telletxearen laguntza izan dut uneoro. 2020. urtean bere zuzendaritzapean argitaratu zen «Oinarrizko hiztegia latina-euskara» eskura izan dut beti bere laguntzari esker eta hainbat termino latinetik zuzenean euskarara itzuli ditugu hiztegian emandako aukera ezberdinez baliatuta. Baina, jakina, zubi-testuak erabili ditut itzulpen-prozesu osoan zehar. Gaztelaniazko hiru erabili ditut, garai ezberdinetan argitaratuak: Luque Moreno 1979, Pérez Gómez 2012 eta Bartolomé 2019. Mahai gainean izan dut beti ingelesezko itzulpen bat ere: Fitch 2002.

Lanaren hurrengo atalean, itzulpen prozesuan zehar izan ditudan arazoen inguruan idatziko dut.

IZENBURUA, GENEROA ETA IZEN BEREZIAK

Hasteko, izen berezien itzulpenen inguruan jardungo naiz. Gaur egun, izen bereziak bere horretan utzi ohi dituzte itzultzaileek. Euskal irakurleari jada ez zaizkio hain arrotz *Michael* edo *Emily* izenak; ez dio begiko minik sortuko irakurtzen ari den eleberrian ageri den tabernak *O'Brien* izena edukitzeak; Estatu Batuetako paisaia arrotzak imajinatuko ditu eta Japoniako soroak; eta hori dena euskaraz ulertzeko gai izango da gainera; are gehiago, horrelako erreferentziek eskuartean duen nobela dagokion garai eta lekuan kokatzen lagunduko dio. Dena den, euskarak badu nolabaiteko muga bat: generoa. «Iradokizunezko eremua da generorik gabeko hizkera. Eta askatasunarena» (Lertxundi 2019: 267).

Beraz, gauza jakina da erdaretatik euskarara itzultzean generoa nola itzuli pentsatu beharko duela lehendabizi itzultzaileak, edota, beste ezer baino lehen, generoa itzuli edo ez itzuli. Xabier Olarrak makina bat hausnarketa eginak ditu James Joycen *Ulises* itzultzean, hamaika tirabira izan baitzituen generoa nolabait markatzeko:

Euskarak badu “gabezia” bat, itzultzaileok aspaldi samar sumatua baina inoiz konpondu ez duguna, seguru aski gure ahalmenetik kanpokotzat hartu izan dugulako. Genero-bereizketaz ari naiz, gramatikalaz, noski. Euskarak, oraingoz ez du modurik gure inguruko hizkuntzek berez egiten dutena izenordain soilez bereizteko: *he/she, él/ella, il/elle...* Kasu horietan, nola edo halako konponbide batera jo behar izan dut, eta erabaki dut emakumezkoaren marka azentu bat izatea: hura/húra edo bera/béra erabili ditut, beraz, “deklinabide osoan” (Xabier Olarra, *apud* Lertxundi 2019: 230).

Antzerki obra honen pasarte hau ez da, noski, James Joycen *Ulises*, baina nik ere izan ditut gorabeherak gai horrekin; adibide garbia da, esaterako, izenburua. Latinez *Phoenissae* (jentilizio femeninoa), gaztelaniaz *Las fenicias*, frantsesez *Les Phéniciennes* eta ingelesez, aldiz, *Phoenician women*. Euskaraz? *Feniziarrek* soilik utzi beharko nuke, ala emakumezkoak direla aipatu?

Eta hortxe nire zalantza: zehaztu behar ote dut lagun hori emakumezkoa dela? Gizonezkoa balitz, ziur ez nukeela zalantzarik izango «lagun bat» jartzeko. Baina, emakumezkoa izanik, zehazteko beharra sentitzen dut, «lagun bat» jarriz gero irakurleek ere gizonezko baten irudiarekin lotuko dutelako uste ia osoan» (Jaka 2013).

Agian haratago aztertu beharreko kontua da, izenburuaren jatorrian sakontzekoa. Greziar tragedien antzezpenean, koruan kantatzen zutenak emakumezkoak izaten al ziren beti? Garrantzia berezia al dute kasu honetan? Emakumezkoak izateak eragina al du antzezlanean? Agian korua kantuan hasten den unean txerta dezakegu zerbait, nolabait denak emakumeak direla azaltzeko eta, horrela, izenburuan emakumeak aipatu gabe utzi.

Beraz, zer egin behar dugu itzultzaileok horrelakoetan? Zer da kontzientzia feministaren arabera itzultzea? Pertsonaia jakin bat emakumezkoa dela zehaztea, ustez-eta bestela irakurleek gizonezko batengan pentsatuko dutela? Ala generoak zehaztu gabe uztea (jatorrizkoak ez baldin badu, noski, beste inon generoa zehazten duen beste hitzik erabiltzen), irakurleen kontzientzian generoen bereizkuntza gaudituta dagoelako esperantzan? (Jaka 2013).

Sarrerako atalean azaldu dudana bezala, ez zaigu koruaren zatirik heldu gaur egun arte, beraz, beste estrategia batzuetara jo behar izan dut: zein garrantzia du izenburuak obran? Eta koruak?

Katowicen (Polonia) kokatutako Silesiako Unibertsitateko Tomasz Sapota eta Iwona Słomak ikertzaileen arabera (Sapota & Sloma 2020), posible da, alde batetik, *Phoenissae* izenburuak emakume ezkongabeez osatutako koru bati erreferentzia egitea (nahiz eta antzezlaneko korurik ez eduki hori frogatzeko). Hala ere, bi ikertzaileen ustetan, Tebasiko erresumako Antigona eta Jokastari egiten dio erreferentzia izenburuak. Hasteko, baliteke Senekak berak korurik ez idatzi izana, edo, idatzi bazuen ere, urteekin galdu denez espekulazio hutsa da koru horren benetako existentzia. Gainera, ez dakigu zenbateraino ulertuko ote zuten erromatarrek Euripidesen *Feniziarrek* nor ziren, eta latinezko izena jentilizio femeninoa denez, erraz pentsa dezakegu antzerkiko bi pertsonaia femeninoengan pentsatuko zutela berehala.

Beraz, eta aipatutako guztia kontuan hartu ondoren, *Feniziar emakumeak* izenburua baliatzea erabaki nuen, baina ustez izenburu egokia zela iritzi ostean, beste duda bat ere sortu zitzaidan: *Feniziar emakumeak* ala *Emakume feniziarak*? Euskara Batuaren Eskuliburura jo nuen segidan:

-ar atzikia (aldaerak: -tar (-dar), -ztar)

KOKALEKUA. Erabileran egindako bidea islatu da 178. arauan. Jatorria adierazten duten kasuetan (debar, bilbotar...), bi aukerak zilegi izanik ere —txinatar kultura zein kultura txinatarra—, oro har, izenaren aurretik jarri ohi dira izen bizidunekin (lapurtar idazleak, azpeitiar medikua...) (Euskara Batuaren Eskuliburua, s.v.).

Pertsonaiei dagokienez, euskaratzeko Euskaltzaindiak 1998an onartutako 82. araua erabili dut: *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*. Zerrenda luze horretan aurkitu ditut izen berezi gehienek ordainak euskaraz, hala nola *Edipo*, *Jokasta* edota *Antigona*. Bestalde, zerrenda luze horretan agertzen ez diren izen bereziekin zer egin? Euskal grafiaz idatzi ditut, hain zuzen arau horretan zehazturiko irizpideen arabera: *Dirtze (Dirce, -es)*, *Ziteron (Cithaeron, -onis)*, *Agave (Agave, -es)*, besteak beste.

ERREFERENTZIA MITOLOGIKOAK

Musikaltasunaz eta izen berezietz gain, erreferentzia mitologikoen erabilera aberatsa da antzezlanaren ezaugarri garrantzitsuetako bat. Kontuan izan behar dugu Senekak antzezlan idaztean buruan zuen publikoa eta gaur egungoa benetan ezberdinak direla. Hainbat bertso-lerrotan, ez dugu mito jakin baten erreferentzia zuzenik (ez da izenik aipatzen), baina erreferentzia txiki baten bidez ulertu behar du entzuleak zein pertsonaia edo zein legendari buruz ari den momentu horretan antzezlan. Adibide batekin ikusiko dugu:

Akteon, harkaitzez jositako mendian zehar ibili ondoren,

txakurren ohi ez bezalako ehizaki baten gisan

15

hilda erori zen lekura:

baso ilunean barrena

eta oihaneko haran laiotzen itzaletan zehar,

ama batek bere ahizpak (jainkoak xaxatuak) gidatu zituen lekura,

non, bere gaiztakeriarekin harro,

tirtso astinduan iltzatutako burua altxa zuen;

edo Zetoren zekorra gorputz gorrotagarria

20

arrastaka eramanez korrika ibili zen lekura,

non oraindik sasi arantzatsuen artean odolak oroitarazten du zezen

basatiaren ihesaldia;

edo Inoren arroka bere gailur gorenari esker

itsaso sakonaren jaun eta jabe den lekura,

ohiz kanpoko krimenetik ihesi

uretara salto egin eta bere burua eta semea urperatuz,

beste ohiz kanpoko bat hasi zuen amaren lekura:

25

(*FenEm.* 14-25)

Antzezlanaren funtsa Ediporen patu iluna azaltzea bada ere, tarteka erreferentzia mitologikoen zerrenda luze bat ageri ohi zaigu eta, normalean, elkar lotzen dituen ezaugarri bat izan ohi dute. Aurreko adibidean, esaterako, zerrendako pertsonaia mitologiko guztien pasarte jakin bati egiten dio Senekak erreferentzia, Ziteron mendian jazotako zerbaiti, Edipo mendi horretarantz baitoa. Batzuetan zuzenean esaten du zein pertsonaiari buruz ari den: 14. bertso-lerroan, zuzenean aipatzen digu Akteoni buruz ari dela. Jarraian (*Phoen.* 17), ordea, ama bat aipatzen digu izenik zehaztu gabe. Irakurle edo entzulearen eskutan uzten du, beraz, Senekak erreferentzia mitologikoa identifikatzea. Horrelakoetan, 21. mendeko irakurlearentzat, oin-ohar bat txertatu dut argibideekin, jakin badakidalako gaur egungo irakurle batek azalpen txiki baten premia izango duela. Aurretik jarri dudan itzulpeneko zatian, azpimarra bakunez azpimarratu ditut erreferentzia mitologiko esplizituak eta azpimarra bikoitzez Senekak izenik gabe iradokitakoak, nik oin-oharren bidez esplizitatu behar izan ditudanak.

Horrez gain, antzezlanean zehar aipatzen diren erreferentzia guztien zerrenda bat ere txertatu dut lanaren amaieran. Oin-oharretan baino azalpen gehiago ematen dut gehienetan, horrela zerbaiten inguruan gehiago sakondu nahi duen irakurleak izango du nondik hasi, eta, aldiz, besterik gabe erreferentzia soila bere osotasunean ulertu nahi duenak ere bai.

Hala ere, irakurleengan ulergarritasuna bilatu nahian suerta daitezkeen zalantzez gain, aurkitu ditut neronek ulertu ez ditudan bertso-lerroak ere. Hitz gutxi erabilita asko esan nahi denean gertatu ohi da normalean, irakurle perfektua buruan izan eta hitz-gakoak baino ez dizkiozu ematen, haiekin dena imajinatzeko gai izango dela pentsatuz. Gerta liteke, halaber, anbiguotasuna sortzea esaterako gatzelaniaz, baina esaldi bera euskaraz ematean esanahi bakar bat gailendu beharra.

... y la selva de un sombrío valle, una madre condujo a sus hermanas

excitadas por el dios y, alegrándose de su maldad,

levantó la cabeza clavada en el vibrante tirso;

(*Phoen.* 16-18, itz. Pérez Gómez 2012).

eta oihaneko haran laiotzen itzaletan zehar,

ama batek bere ahizpak (jainkoak xaxatuak) gidatu zituen lekura,

non, bere gaiztakeriarekin harro,

tirtso astinduan iltzatutako burua altxa zuen;

(*FenEm.* 16-18)

Aurretik bertso-lerro berberari erreferentzia egin badiot ere, beste behin azpimarratu nahiko nuke, gerora, antzezlanean zehar askotan errepikatzen den fenomeno bat pertsonaia mitologikoak esplizituki ez izendatzearena. Honela diote jatorrizkoak eta mahai gainean izan ditudan itzulpen batzuek: «Vibrante fixum praetulit thyrsus caput;» (*Phoen.* 18); «levantó la cabeza clavada en el vibrante tirso» (*Phoen.* 18, itz. Pérez Gómez 2012); «blandió la cabeza clavada en el tirso vibrante;» (*Phoen.* 18, itz. Bartolomé Gómez 2019); «displayed on her quivering thyrsus a head fixed there;» (*Phoen.* 18, itz. Fitch 2002); Noski, Agave eta Penteoren inguruan ezer gutxi dakien norbaitek erraz pentsa lezake burua altxa zuena ama bat izan zela (Agave kasu honetan) esaldiko subjektua batean aldatu gabe, baina Penteoz ari da. Aditza hirugarren pertsonan izatea, eta ez izenik ez subjekturik ez agertzea nahasgarri izan liteke. Lehen aldiz itzuli nuenean, ez nuen ulertzen zer dela eta egongo ote zen Agave hain pozik edota gaiztakeriarekin harro eta honela itzuli nituen lerro horiek: «ama batek bere ahizpak (jainkoak xaxatuak) gidatu zituen lekura, / non, bere gaiztakeriarekin harro, / tirtso astinduan iltzatutako burua astindu zuen». Nola astinduko zuen burua hilik bazegoen? Edota zergatik hil zuen norbait? Edo norbaitek hil zuen ama hori? Ez nuen ulertzen nolatan astinduko zuen tirtso batean iltzatutako burua. Noren burua? Informazioa falta zitzaidala sumatzen nuen, itzultzen ari nintzena ulertu gabe ari nintzen idazten. Azkenean, mitologia liburuetan kontsultatu ondoren, ulertu nuen Senekak esan nahi zuena: Dionisok (Dioniso baita, hemen, jainko xaxatzailea) eramán zituen Agave eta ahizpak Ziteron mendira, bere ohorezko festa ospatzera. Penteok, Agaveren semeak eta momentu hartan Tebasiko erregeak, festa hori eragotzi nahi izan zuen eta amak eta amaren ahizpek hil egin zuten. Ama pozik dago Penteo hil duelako, ez baitaki hain zuzen bere semea dela (piztia zela uste zuen). Horri esker, konturatu naiz zein garrantzitsua den itzultzen ari garen horri buruz irakur dezakegun guztia eskura izatea: gehiago balio du, kasu honetan esaterako, erreferentzia mitologikoen inguruan irakurri eta horretan denbora inbertitzeak, amaierako mezua egokia izan dadin.

LEXIKOA

Itz bakoitzak bere toki. «Leioan leiatilla; atean maratilla»

Martin Ugarte 'Saletxe'

Lexiko aberatsa behar du irakurleak gai jakin bati buruzko obra baten aurrean. Mitologia ulertzeko, alde batetik, pertsonaiaren beraren istorioa ezagutu beharra dago, baina horrez gain, terminologia ere ondo ulertu beharra dago. Bi ezaugarri horiek berebiziko garrantzia dute beti, baina are handiagoa itzultzen ari garen unean. Esan beharra dut, gure hezkuntza-testuinguruan, mitologiaz ari garenean, terminologia gehiena gaztelaniaz etorri ohi zaigula burura, liburu batera jotzen badugu erreferentzia mitologiko baten bila, gaztelaniazko liburu batera jo ohi dugu normalean, edota gaztelaniaz bilatuko dugu Interneten, hasteko, pertsonaiaren edo leku mitologikoaren beraren izena gaztelaniaz baino ez dugulako ezagutzen. Euskal itzultzaile batek, beraz, eta hitz gutxitan, beste estrategia batzuk bilatu beharko ditu.

Mitologiaren alorrean euskaraz informazio bila joz gero, euskal mitologiaren inguruko liburu nahiz artikuluak baino ez dituzu aurkitzen lehendabizi. Dena den, esan behar dut Euskaltzaindiaren 76. eta 82. arauak oso baliagarri izan zaizkidala itzulpen prozesu guztian zehar. Pertsonaia mitologikoen euskarazko ordainen zerrenda benetan luzea emateaz gain, atzerriko izenak euskaraz emateko erabili dituzten irizpideen inguruko azalpenak ere badaude: euskal grafiaz izenak nola eman, zer aldatu eta zer bere horretan utzi, besteak beste. Amaitzeko, esan beharra daukat euskarazko Wikipedian bertan ere aurkitu ditudala mitologiaren inguruko artikuluetan euskaraz nola eman ziur ez nekien termino askoren ordainak eta azalpenak. Egia da, Wikipediako amaierako erreferentzien atalean Euskaltzaindiako arauetara bidaltzen gaituela, baina asko errazten du itzultzailearen lana gai jakin baten inguruan jada euskaraz emandako azalpen osatuak irakurtzeko aukera badu itzultzen hasi aurretik.

Atal honetan beste behin ere joko dut aurretik aipaturiko bertso-lerroetara (*Phoen.* 16-18). Era batera edo bestera, garbi utzi nahiko nituzke bertso-lerro gutxi batzuetan suerta daitezkeen zalantza zein arazo guztiak. Hasieran ulermena izan da arazoa, erreferentzia mitologikoa gaizki ulertzeak esaldiari euskaraz zentzu ezberdina ematera eraman ninduen-eta. Penteo eta Agaveren istorioa ondo irakurri behar izan nuen lehendabizi. Bestalde, izen bereziak euskal grafiaz edota Euskaltzaindiaren arauen arabera zuzen idazteko prest egon beharra duzu ezer idazten hasi baino lehen, eta, azkenean, bi pausu horiek ondo eman ondoren has gaitezke itzultzen.

Dena den, ohikoa da terminologia aldetik ere arazoak sortzea euskaraz idazten ari garenean. Bertso-lerro jakin hauetan esaterako, amaiera aldean izan nuen zalantza handiena: «Vibrante fixum praetulit thyrsos caput;» (*Phoen.* 18); «levantó la cabeza clavada en el vibrante tirso;» (*Phoen.* 18, itz. Pérez Gómez 2012); «displayed on her quivering thyrsus a head fixed there;» (*Phoen.* 18, itz. Fitch 2002). Nola eman *Thyrsus* (

gazt. *tirso*) euskaraz? Izatez, Dionisok eraman ohi zuen makila bat da, orain ikasi dudanaren arabera, eta aski erraz aurki daitezke makilaren irudiak Interneten. Makila luze bat eraman ohi zuen Dioniso Jainkoak, puntan pinaburu bat eta huntz-orri edota mahats-orriak inguruan izan ohi zituen. «Huntzorri makila» erabili nuen hasieran, Orotariko Euskal Hiztegian aurkitu bainuen *huntzorri* terminoaren erabileraren berri:

huntzorri.

(V, G; Añ (V)), untzurri (VocCB→Dv (V, G)), autzorri (V-gip). Ref.: A, Etxba Eib (untzorrixa, autz-orrixa); Elexp Berg. *Hiedra; hoja de hiedra. "Hiedra, [...] su hoja, untzorria"* Añ. "*Hiedra, hoja de la hiedra. Untzorrixa estalduta zugatz guztia, la hiedra cubría todo el árbol*" Etxba Eib. "Autz-orrixa, hiedra. Autz-orrixa, orma zarretan gora zabaltzen dala, edertzen ditu izan ziran gizaldietako zuti-jausixak" Ib. "*Hoja de yedra. Untzorrixa kailluendako dok ona*" Elexp Berg. v. huntz, huntzosto.

HUNTZORRI-MAKILA. *Tirso, vara enramada.*

[Terpsikorek dauko] untzorri-makila bat / Tirso deritxona. Azc PB 305.

(OEH, s.v.)

Behin hori ikusita, *huntzorri* terminoaren erabilera aztertzeari ekin nion. Ikusi nuen dokumentu batzuetan ageri dela, bereziki Bizkaiko euskararen corpus batzuetan, baina beti aspaldiko erabilera azpimarratuz. Ordenagailuko zuzentzaileak ere ez zuen ezaguna termino berri hau, gaizki idatzita zegoela eta bi hitzetan banatzeko proposatzen zidan. Azkenean, eta bilaketa askoren ondoren, UZEI Sinomimoen Hiztegian aurkitu nuen terminoaren ortografia proposamen egokia: *huntz-orri* edo *huntz-hosto*, bi hitzetan banatuta eta marratxoarekin.

Beraz, itzuli nintzen aurreko nire itzulpenera, Orotariko Euskal Hiztegian ikusitakora: «Huntzorri makila». Ortografia zuzentzera nindoala, ikusi nuen bi gidoi hain gertu jartzeak asko zailduko lukeela irakurketa: «Huntz-orri-makila» (hiru osagaiko hitz elkartua). Bestalde, azken kontsulta bat ere egin nuen «Oinarrizko Hiztegia. Latina-euskara» hiztegian eta *tirtso* terminoa ageri zen bertan, latinezko *thyrsus* sarreran, euskarazko ordain gisa. Erabaki bat hartu beharra zegoen, beraz.

Hasteko, Orotariko Euskal Hiztegiako aspaldiko erabilera nuen esku artean, baina marratxoaren erabilera nahasgarriak lantzen zuen nolabait euskal tradiziora jotzeko apustua. Gainera, Euskara-Latina hiztegia orain dela gutxi argitaratutako lana da, 2020koa, berria, gaur egungoa nolabait esateko. Agian euskal irakurle edo entzule batek ulertuko luke «hutz-orria» zein hosto den eta agian baten batek lotuko luke Dionisorekin, edo agian ez. Baina funtsezkoa da zilegi eta bidezko dela *tirtso* maileguari atea zabaltzea euskarazko testuetan.

Hiztegi hori lagungarri izan zait itzulpeneko beste hainbat zatitan ere. Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan ez dugu latina lantzen, eta, goian azaldu dudan moduan, zubi testuak erabili ditut neure itzulpena egiteko.

Hala ere, tarteka jatorrizko testuaren termino zehatza behar izan dut, itzulpenetako hitz edo esaldiren bat anbigua iruditu zaidanean, esaterako. Kasu horietan latinezko testuari heldu behar izan diot eta horretarako, Gradu Amaierako Lanean tutore izan dudan Gidor Bilbao irakaslearen laguntza behar izan dut. Hona hemen adibide batzuk:

Bi terminoren itzulpen-aukeraketa:

<u>JATORRIZKOA</u>	<u>ZUBI-TESTUA</u>	<u>ZUBI-TESTUA</u>	<u>ZUBI-TESTUA</u>
<i>latinez</i>	<i>Gaztelaniaz</i> (Pérez 2012)	<i>Gaztelaniaz</i> (Bartolomé 2019)	<i>Ingelesez</i> (Fitch 2002)
Fortuna, credis? aliquis est ex me pius ? (<i>Phoen.</i> 82)	Fortuna ¿estás fallando? ¿Hay algún hijo mío fiel al deber ?	Fortuna, ¿cedes? ¿Alguien leal a su deber nacido de mí?	Fortune, are you failing? Is some child of mine natural ?
<u>HASIERAKO</u> <u>ITZULPENA</u>	<u>AMAIERAKO</u> <u>ITZULPENA</u>	<u>AZALPENA</u>	
Nire seme- alabetako batek betetzen al ditu betebeharrak fidelki?	Nire seme-alabetako bat eginbidetsua ?	Jatorrizko testuari erreparatu gabe egin nuen lehenengo itzulpen hori. Parafraasi bat ematen ahalegindu nintzen <i>pius</i> terminoa nolabait ordezkatzeko, baina Senekaren lanean garrantzizkoa den terminoa izanda, Latina- Euskara hiztegiara jo nuen.	
<u>ONDORIOA</u>			
<p>Latina-Euskara Oinarrizko Hiztegiaren laguntzaz ikusi dut Senekak erabiltzen duen <i>pius</i> terminoaren euskarazko itzulpen posible bat jada eskura nuela, eta hobe dela termino hori erabiltzea kontzeptuaren azalpena parafraasi baten bidez eman beharrean. Gainera, horrela, <i>eginbidetsu</i> erabilia, bertso-lerroa motzago geratu zait antzezlanaren erritmoa azkartzearen mesedetan.</p>			

<u>JATORRIZKOA</u> <i>latinez</i>	<u>ZUBI-TESTUA</u> <i>Gaztelaniaz</i> (Pérez 2012)	<u>ZUBI-TESTUA</u> <i>Gaztelaniaz</i> (Bartolomé 2019)	<u>ZUBI-TESTUA</u> <i>Ingelesez</i> (Fitch 2002)
proloqui hymenaeum pudet taedasque nostras? <i>(Phoen. 262-263)</i>	¿Te avergüenza hablar de ese matrimonio y de nuestras antorchas nupciales ?	¿Me avergüenza hablar en voz alta de la boda y de nuestras antorchas nupciales ?	Am I ashamed to speak out about our marriage and wedlock ?
<u>HASIERAKO</u> <u>ITZULPENA</u>	<u>AMAIERAKO</u> <u>ITZULPENA</u>	<u>AZALPENA</u>	
Lotsa eragiten al du ezkontza hori eta gure ezkontza eguneko zuziak aipatzeak?	Lotsa eragiten al du ezkontza hori eta gure eztei-zuziak aipatzeak?	Latina-Euskara hiztegian egindako kontsulta: taeda, -ae, f.: pinu, pinu-adar; pinu-zur; zuzi, tortxa, eztei-zuzi ; ezkontza, maitasun.	
<u>ONDORIOA</u>			
Itzultzaile batek eskura izan beharko lituzke xede-testuko hizkuntzan dauzkan Corpus nahiz hiztegi erabilgarrienak. Kasu honetan, garbi dago Latina-Euskara hiztegia izan dela hiztegi beharrezkoetako bat. Aurretik terminologia bilaketa bat egin bada, itzultzailea jakinaren gainean egon behar da eta ez du denbora galdu behar termino berriak edo parafraasiak sortzen.			

NATURALITASUNA ETA FRASEOLOGIA

Nola jakin testu baten lehen irakurraldian itzulpen baten aurrean gauden edo ez? Nola hasi pisten bila? Pisten bila hasi beharrak agian? Itzultzailearen luma nabari ez den itzulpena al da benetako itzulpena? Edota itzultzaileak hobetu al dezake jatorri testua?

Bai itzulpenetan bai lehenengoz erredaktatutako idazlanetan kontuan hartu beharreko gauza garrantzitsuenetako bat da xede-hizkuntzaren berezko ezaugarriak mantentzea.

Nola deskribatuko luke egoera hau soilik euskaraz hitz egiten dakien norbaitek eta beste hizkuntzekin sekula harremanik izan ez duenak? Halako burbuila batean bizi izan den norbaitentzat naturala al da esaldi hau?

Era horretan, xede-hizkuntzan soilik mintzo den hiztun bat imajinatu izan ohi dut itzultzean. Esaldi bakoitza berrirakurtzen dut buruan soilik xede-hizkuntza dudana bitartean, edo hala egiten ahalegintzen naiz behintzat.

Egia da ahozketasunarekin nolabait lotuta ere badagoela helburuko testua hain natural uzte hori, bai behintzat euskara xede-hizkuntzat dugun kasuetan. Iruditzen zait hizkuntza bakoitzean naturalak diren «egindako esaldi» horiekin geratzen dela irakurlea, eta itzultzaileak naturaltasunarekin asmatzen badu, itzultzailea edo zuzentzaile baten luparekin irakurtzen ez duen irakurlea ere konturatuko da lan txukuna dela.

Hainbatetan saiatu naiz, beraz, naturaltasun hori mantentzen, egindako esaldiei beren lekua uzten, horregatik, azpimarragarriak iruditu zaizkidan esaldi jakin batzuei garrantzia eman nahi nieke. Hona hemen adibide batzuk. Jatorrizko bertso-lerroa idatzi dut lehendabizi, ondoren Bartolomé eta Pérezen itzulpenak gehitu ditut, Fitchen ingelesezko itzulpena ere bai, eta amaieran euskarazko bi itzulpen: azpimarra bakunez hasiera batean burura etorri zitzaidan itzulpen posible bat, jatorrizkotik gertukoena, eta, bestalde, azpimarra bikoitzen xede-hizkuntza kontuan hartu ondoren naturaltasuna edota fraseologia egokiagoa. Hona hemen adibideak:

in plana **tendis**? uado: praerupta **appetis**? (*Phoen* 63)
¿**Te diriges** a las llanuras? Voy. ¿**Tratas de alcanzar** los abruptos montes?
(Bartolomé)
¿**Vas** a las llanuras? Allí voy yo; ¿**Te encaminas a** las montañas? (Pérez)
Do **you head for** level ground? I come too. Do **you make for** the cliffs? (Fitch)
Lautadetara **zoaz**? Ni ere bai. Mendialdera joan nahi **duzu**?
Lautadetara **zoazela**? Baita ni ere. Mendialdera joatea erabakitzen **duzula**?

adhuc inultum. **Dextra quid cessas iners** (*Phoen*. 91)
todavía sin venganza. **Diestra mía**, ¿por qué, quieta, renuncias (Bartolomé)
aún sin vengar. **Diestra**, ¿por qué indolente te demoras? (Pérez)
who is still unavenged. **My right hand**, why so remiss in exacting punishment? (Fitch)
oraindik mendekua hartu gabe dago eta. **Eskuineko esku**. zergatik luzatzen duzu hainbeste.

oraindik mendekua hartu gabe dago eta. Ene eskuineko esku enea, zergatik luzatzen duzu hainbeste.

Útinam quidem rescindere has quirem uias, (*Phoen.* 226)

¡**Ojalá** pudiera cortar estos caminos (Bartolomé)

¡**Ojalá** pudiera al menos cortar esos caminos (Pérez)

If only I could cut off these these pathways (Fitch)

Bide horiek mozterik izango banu behintzat...

Bide horiek mozterik izango banu sikiera...

Auidis cruoris, imperii, armorum, doli, (*Phoen.* 296)

ávidos de sangre, **de** poder, **de** armas, **de** engaño, (Bartolomé)

ávidos como están de sangre, **de** poder, **de** armas, **de** traición, (Pérez)

being greedy for blood, power, arms, treachery (Fitch)

odola, boterea, armak, traizioa nahi duten

odol-gosez, botere-gosez,

arma-gosez, traizio-gosez

dauden

Non sunt minae: iam **propius accessit** malum. (*Phoen.* 323)

No se trata de amenazas. Ya la desgracia **se ha acercado más** (Bartolomé)

No son amenazas, la desgracia ya **ha llegado muy cerca**. (Pérez)

These are no just threats; the evil **has come closer**; (Fitch)

zorigaitza gertu dugu jada.

zorigaitza ate-joka dugu jada.

PARE BAT GRAMATIKA KONTU

Azkenik, aurretik aipatu ditudan aspektu guztiak elkarrekin josteko haria dugu, nola ez, gramatika. Luze eta zabal mintzatu naiteke gai honi buruz, baina itzulpen honetan buruhauste handienak sortu dizkidan puntu bat hautatu dut soilik: posesiboa edo genitibo kasuko izenordainak. Erabilitako zubi-testuetako erderetan oso ohikoa da posesiboaren erabilera, baina nola eman hori euskaraz? Beste ezer kontsultatu baino lehen, Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Eskuliburura jo nuen, eta honela dio bertan:

Genitibo bihurkaria: nire/neure; haren/bere

Noiz genitibo normalak, noiz genitibo bihurkariak: nire/neure, gure/geure...

Lege zorrotzik ez dagoen arren (Euskaltzaindiak ez du arautu auzi hau), hona hemen zein den gramatikan eman ohi den araua: “Erabil bedi genitibo bihurkaria (neure, heure, bere...) baldin eta izenordain horrek aurrekaria badu perpaus bereko beste NOR, NORI edo NORK sintagma batean”.

- Aditzak ematen digu horretarako arrastoa, aditz jokatu bada:

(Ni) **neure** etxera joango **naiz**.

(Nik) **neure** lanak egingo ditut.

Zeure etxea erre **dizut**.

(Euskara Batuaren Eskuliburua, s.v.).

Beraz, behin euskara estandarerako nolabait bultzaturikoa irakurri ondoren, neure itzulpeneko adibide zehatz bat ikus dezagun:

<u>JATORRIZKOA</u> <i>latinez</i>	<u>ZUBI-TESTUA</u> <i>Gaztelaniaz</i> (Pérez 2012)	<u>ZUBI-TESTUA</u> <i>Gaztelaniaz</i> (Bartolomé 2019)	<u>ZUBI-TESTUA</u> <i>Ingelesez</i> (Fitch 2002)
Me fugio; fugio conscium scelerum omnium (<i>Phoen.</i> 216)	Huyo de mí , huyo de mi pecho cómplice de todos mis crímenes,	De mí huyo, huyo de este pecho, cómplice de todos mis crímenes,	I flee myself , I flee a conscience burdened with all those crimes;
<u>HASIERAKO ITZULPENA</u>	<u>AMAIERAKO ITZULPENA</u>	<u>AZALPENA</u>	
Nire buruari egiten diot ihes, krimen ororen konplize den nire bularrari,	Neure buruari egiten diot ihes, krimen ororen konplize den nire bularrari,	<p>Euskara Batuaren Eskuliburuan kontsultatutakoaren arabera:</p> <p>(Nik) neure buruari egiten diot ihes.</p> <p>Genitibo bihurkaria erabili beharko nuke kasu horretan erabilitako izenordainak erreferentea duelako «perpaus bereko beste NOR, NORI edo NORK sintagma batean».</p> <p>Bestalde, esaldiaren bigarren zatiari dagokionez, zalantza gehiago izan ditut. Zalantzak argitzeko, buelta eman diot lehendabizi perpausari. Esaldia, izatez honela da:</p> <p>Nire edo neure bularra krimen ororen konplize da.</p> <p>Kasu honetan berriro kontsultatu dut aurretik aipatutako iturria. Ez dugu bihurkaririk erabili behar, EBEn hitzak errepikatuz «genitibo horietan aipatzen diren pertsonen morfemak ez baitira ageri aditzean»:</p> <p>Nire (neure*) bularra krimen ororen konplize da.</p>	

Beraz, aditzaren morfemari adi begiratu behar izan diot itzulpen osoan zehar aipatutako arauarekin koherente izateko. Aitortu beharra daukat hirugarren pertsonako genitiboekin izan dudala arazo gehien. Lan honi esker, neurri batean behintzat desberdintzen eta erabilera ezberdinak aztertzen ikasi dut. Hainbat iturri kontsultatu ondoren, Amaia Lasheras Perezek *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian argitaratutako artikuluak lagundu dit auzia benetan ulertzen, hona hemen bertatik hartutako azalpenaren zati bat:

Laburbilduz, esango dugu *berek* perpaus berean duela erreferentzia (NOR, NORK edo NORI) eta *harenen* erreferentzia, berriz, aurretik aipatutako norbait edo zerbait dela.

Adibideak:

(5) **Kristina bere autoan** itzuli da etxera. (Kristinaren autoan)

(6) **Kristina haren** autoan itzuli da etxera. (Hirugarren baten autoan)

2.3. Honaino, arazo handirik gabe bereizten dugu noiz erabili izenordain bihurtaria eta noiz soila, baina afera korapilatu egiten da mendeko perpausak tartean daudenean; izan ere, aditz bat baino gehiago agertuko zaigu, eta erreferentzia zer aditzi dagokion jakin behar dugu *haren/haien* ala *bere/beren* erabili behar dugun erabakitzeko.

Azter ditzagun bi adibide hauek:

(7) **Haren** (irakaslearen edo hirugarren baten) aholkuak aintzat hartzeko esan zion **irakasleak ikasleari**.

(8) **Bere** (ikaslearen; NORK) aholkuak aintzat hartzeko esan zion **irakasleak ikasleari**.

Goiko bi kasu horietan (7 eta 8), *haren* nahiz *bere* izenordainak mendeko perpausari dagozkie; hala, bakoitzaren erreferentzia zein den jakiteko, perpaus horretako aditzera jo beharko dugu: *hartzeko*. Lehen adibidean (7), «irakaslea» ez da ez NOR, ez NORI, ez NORK mendeko perpaus horretan, baina «ikaslea», aldiz, bai (NORK); beraz, *haren* erabilita, «irakaslea»ren edo beste «hirugarren» baten aholkuei buruz ariko gara, eta ez «ikaslea»ren aholkuei buruz. Bigarren adibidean (8), berriz, «ikaslea»ren aholkuak izango dira, «ikaslea» agertzen baita NORK kasuan mendeko perpausari.

(Lasheras 2021)

Aurreko zalantza guztiak argitzean egin dudan modu berean, benetan ulertu ote dudan edo ez ziur jakiteko, onena adibide batekin kontrastatzea izan ohi da:

Banoa, banoa, utzidazu;

40

bere / haren erreinu galduaren enblema odoltsua eskuetan,

Laio haserre bizian dago.

Bere edo *haren* erabili beharko nuke kasu horretan? Perpaus nagusia honakoa da: Laio haserre bizian dago. Beraz, Laio da subjektua. Mendeko perpausari begiratu behar zaio ondoren, betiere Lasherasek emandako adibideari jarraituz: *bere* (Laioren; NORK “eskuetan hartuta”) *erreinu galduaren enblema odoltsua eskuetan*. Beraz, Laio NORK kasuan ageri zaigu menpeko perpausari ere, aditzaren erreferentzia Laio delako. Eta gure itzulpenean, *bere* erabili behar dugu ezinbestean. Azkenik, bihurtaria eta posesiboaren erabilera nahasgarriaren atal honekin amaitzeko, azken kasu berezi bati egin nahiko nioke erreferentzia: posesiboa aipatzea beharrezkoa ez den kasuei. Adibide baten bidez ekingo diot azalpenari:

<p><u>JATORRIZKOA</u></p> <p><i>latinez</i></p>	<p><u>ZUBI-TESTUA</u></p> <p><i>Gaztelaniaz</i></p> <p>(Pérez 2012)</p>	<p><u>ZUBI-TESTUA</u></p> <p><i>Gaztelaniaz</i></p> <p>(Bartolomé 2019)</p>	<p><u>ZUBI-TESTUA</u></p> <p><i>Ingelesez</i></p> <p>(Fitch 2002)</p>
<p>Matri dedisti. Mitte genitoris manum, Animosa uirgo (<i>Phoen.</i> 93)</p>	<p>se lo diste a mi madre. Suelta la mano de tu progenitor noble muchacha</p>	<p>a tu madre se lo has dado. Libera la mano de tu padre, joven valiente;</p>	<p>you paid to my mother. Let go your father's hand, noble maid;</p>
<p><u>HASIERAKO ITZULPENA</u></p>	<p><u>AMAIERAKO ITZULPENA</u></p>	<p><u>AZALPENA</u></p>	
<p>Zure amari eman zenion. Askatu zure aitaren eskua, neskato kementsu horrek;</p>	<p>Amari eman zenion. Askatu aitaren eskua, neskato kementsu horrek;</p>	<p>Hasteko, latinez ez dauka posesiborik: "matri dedisti", "Mitte genitoris manum". Dena den, hasieran posesiboa erabili nuen zubi-testuen eraginez.</p> <p>Bertso-lerroaren hasieran (<i>Zure amari eman zenion</i>) Jokastari buruz ari da. Izatez bien ama bada ere, kasu honetan "zure" erabili nuen eta ez "nire", Ediporentzat Jokasta ez delako bere ama eta arestian konturatu denez ez du bat-batean "nire ama" esango Jokastari erreferentzia egitean. Aurrekoaren bide beretik jarraituta, bertso-lerroaren bigarren zatian (<i>Askatu zure aitaren eskua</i>) Antigonaren aita dela dio eta ez anaia, berez bi gauzak egia diren arren.</p> <p>Hala ere, soilik latinari begiratuta, euskaraz ez da ezinbestekoa "zure" edo "nire" erabiltzea.</p> <p>Bestalde, zalantzak argitzeko, beste behin kontsultatu dut aurretik aipatutako iturria. Ez dugu posesiborik erabili behar, EBEn hitzak errepikatuz «Euskarak, sarritan, ez du gaztelaniazko <i>su</i> posesiboaren edo frantsesezko <i>son, sa, ses, leur(s)</i> posesiboen ordain-premiarik, eta, beraz, egoki da haren ordaina saihestea».</p>	

EPILOGOA

Roberto Calassori 2012. urtean egindako elkarrizketa bat izango da azken atal honen eskeletoa. Calassok emandako erantzunak itzuli ditut eta pixkanaka neure lanarekin lotu. Mitologiak gaur egun duen egoera azaltzeko ahaleginetako batean honela aitortu zuen:

Behin mitoaren erreinuan, inguru arriskutsura heltzen da bat, lurralde ezezagun batean hain zuzen ere. Hasteko, *carmen* bat errezitatu edo kantatu daiteke. Latinetik hartutako terminoa da *carmen*, normalean «poema» terminoarekin itzuli ohi den arren, «sorginkeria» da lehen itzulpen posiblea. Horixe da gure esku daukagun armarik onena. (M. Belmonte et al. 2020: 2814)³

Carmen delakoa jarraituz, beraz, ahalegindu naiz itzulpen lan hau egiten: bertso-lerroak izan dira nire sorginkeria. Gai sakonak aipatzen dira antzezlanean: patua, kondena, suizidioa, zoria... Publiko berri batengana heldu nahiko nuke eta helburu hori izan dut buruan iltzatuta itzulpen prozesu guztian zehar. Agian nire adin inguruko gazte guztiek eskura izango balute antzezlan hau eta bertan ageri diren erreferentzia mitologikoen azalpen garbi bat euskara gaurkotu batean eta txukun idatzita, gazte gehiagok ezagutuko lukete Seneka, norbaitengana helduko litzateke Ediporen tragedia, eta, baliteke, norbait Antigonekin islatuta sentitzea familia hain firmeki babestu beharra tokatu izan zaiolako, edo indarra emango dio behintzat.

Salustiok filosofo neoplatonikoak idatzi zuen bezala, mundua mito bat da izatez. Horregatik, egiten duguna eginda ere, alegia baten erdian gaude. Eta alegiak dira, definizioz, sorgintzen gaituztenak. Galdera honakoa da, ea sorginkeria hori sumatzen dugun edo ez. (M. Belmonte et al. 2020: 2814)⁴

Mitoez errealitate paraleloetan azaltzen dizkigute gure gizartean oraindik ere ematen diren egoerak. Beste errealitate batetik gauzak kontatzen dizkigutenean errazago hitz egiten dugu halako gai potoloiez, nahiago izaten dugu urrutiko lagun baten arazoei buruz hitz egiten hasi gure arazoei buruz hitz egiteari ekin beharrean, errazago kontatzen ditugu geure gora beherak beste batenak direla esanda; eta gogoko dugu telesailetan geure burua islatuta sentitzea, geure arazoak arazo izaten jarraitzen badute ere.

Iruditzen zait mitologiak ere baduela indar hori, errealitate ezberdin baten bidez guregan darraiten arazoak plazaratzeko gai dira eta, bide batez, hausnartuarazi egiten digute behintzat. Horregatik iruditzen zait hain garrantzitsua beti apalategian eduki izan

³ Autorearen itzulpena. Hau da jatorrizko argitaratua, lehenengo elkarrizketa italieraz izan bazen ere: «En el reino del mito, uno accede a una zona peligrosa, que es precisamente el terreno de lo desconocido. Lo que puede hacer uno, en primer lugar, es recitar o cantar un *carmen*, un término latino que normalmente se traduce como ‘poema’, pero en primer lugar significa ‘hechizo’. Ésa es la mejor arma que tenemos a nuestra disposición.»

⁴ Autorearen itzulpena. Hau da jatorrizko argitaratua, lehenengo elkarrizketa italieraz izan bazen ere: «Como escribió Salustio, el filósofo neoplatónico, el mundo es un mito en sí. Por eso, hagamos lo que hagamos, estamos en medio de una fábula. Y las fábulas, por definición, son lo que nos hechiza. La cuestión es si percibimos el hechizo o no.»

ditugun antezlan edo obrei bigarren aukera bat eman eta gaurkotzea, beste hainbat obra itzultzea bezain ezinbesteko eta beharrezko; are gehiago euskal literaturan.

Mitoak ez dira asmakizunak, hor dauden istorioak baizik. Ezin liteke esan mito bat momentu jakin batean hasten denik. Mito bat, gainera, ez da istorio bakar bat, mitoak beti dira adar ugaridun zuhaitzak. Aldaera guztiak kontuan hartu gabe ez duzu guztiz ulertzen. *Le nozze di Cadmo e Armonia* argitaratu nuenean ideia hori plazaratzea zen hasiera hasieratik nire helburu, Ariadnaren istorioarekin. (M. Belmonte et al. 2020: 2816)⁵

Guztiongana heltzeko gai dira mitoak, euren baitan duten anbiguotasun eta irakurketa posible anitzagatik. Eta guztiongana heltzeko gai den esparru hori indartzea dagokigula iruditzen zait. Baina, orduan zergatik ez du nire adin bereko ia inork ezagutzen Seneka? Zein da arazoa? Zein erruduna?

Eta, zergatik ezagutzen dute, ezagutzekotan, Edipo soilik? Freudek Ediporen tragedia erabili zuelako gaur egun hain ezagun den “Ediporen konplexua” azaltzeko. Eta badakit izatez Ediporen tragedian bertan berak ez dakiela ezkondu eta haurrak izan aurretik bere amaren aurrean dagoela, eta agian tragedia bera aldatzeak kalteak eragin ditzakeela mitoaren beraren transmisioan, baina iruditzen zait Freudek lortu zuela nolabait *Edipo* izena betikotzea. Agian tragedia bere horretan ez du inork gogoratuko, baina lotuko du hein handi batean familiarekin, edo aita batekin, edota iturrietara joko du kontsultatzera.

Beraz, eta itzultzaile baten azalean jarrita, eskuartean nuen jatorrizko testu horri ahalik eta etekin handiena atera nahi izan diot, argumentu guzti horiek era batera edo bestera islatu. Noski, ez dut nire lana Freuden psikoanalisi kontzeptu batekin alderatu nahi izan, baina orain arte euskaraz izan ez duen tonu bat eman nahi nion Senekari: bertso-lerroen eta errimen bidez, jatorritik ahalik eta gertuen kokatu nahi nuen irakurle edo entzulea, tragedia baten aurrean parez pare.

Gogoan eduki beharrekoa da, halaber, Sofoklesen *Antigona* antezlanak –nahiz eta ez den lan honetarako itzulitako antzerki obra, kontatzen den istorioak eta kokatzen den garaiak badu zerikusia– lotura zuzena duela antzerki modernoaren gorakadarekin. 1841ko urriaren 28an Postdamen *Antigona* antezzlana taularatu zen moduak Europa modernoan aurretik sekula ikusi gabeko antzezteko modu bati hasiera eman zion. Ludwig Tieck izan zen zuzendari, Mendelssohnek korua eta musika gehitu zizkion eta J.J. Chr. Donner aritu zen itzultzaile lanetan. Antezzlana greziar tragedia klasikoen lehen birsorkuntza izan zela berretsi zuten Europa osoan emandako ekitaldietan zehar: Berlinetik hasi eta Parisera heldu ziren, baita Londres eta Edinburgoraino ere. Era horretan, *Antigona* izan zen

⁵ Autorearen itzulpena. Hau da jatorrizko argitaratua, lehenengo elkarrizketa italieraz izan bazen ere: «Los mitos no son invenciones, sino historias que están ahí. No se puede decir que un mito empiece en un momento determinado. Un mito, además, nunca es una única historia, los mitos son siempre árboles con muchas ramas. Hasta que no has considerado todas las variantes posibles, no lo comprendes de verdad. Lo que intenté en Las bodas de Cadmo y Harmonía fue evocar esa idea desde el principio, con la historia de Ariadna.»

Frantzian antzinako Grezian antzezten zituzten era berean aurkeztutako lehen greziar tragedia (Steiner 2013: 24).

Otsoak hil egiten du eta arrisku bat sortzen dio gizakiari. Baina Apolo, beste gauza batzuen artean, otsoa ere bazen. Eta ezin ahaztu Atenasko gazteak, Artemisaren tenpluan prestatzen baitziren hartz-kume bihurtzeko. Ikusten duzu nola nahasten diren Chauveteko gaiak mitologian, ezta? Ezinezkoa da mitologia ulertzea metamorfosiaren ideiarik gabe. (M. Belmonte et al. 2020: 2813)⁶

Aldatuz doan dena bizirik dagoelako aldatzen da, aldaketa du kondena eta patu. Bizirik dagoen eta dirauen oro aldatu egiten da etengabe, ez da orakulu bat izan behar hori jakiteko. Hizkuntzekin gertatzen da hori, esaterako: garai berrietara moldatzen eta aldi berean eraldatzen diren hizkuntzek bizirik jarraitzen dute. Horrekin esan nahi dudana da mitoek gaur egun merezi duten lekua izan dezaten, agian nolabait eguneratu egin beharrean daudela. Ez dut esan nahi mitoak aldatu behar direnik, inondik inora ere ez, baina gaur egungo hizkerara ekar ditzakegu beharbada: gaur egungo irakurle bat irudikatu eta hari kontatuko bagenio bezala kontatu mitoak eta mitoen inguruko antzezlanak. Agian horrela posible izango litzateke publiko zabalago batengana heltzea, azken finean, gauza jakina delako mitoetan islatzen diren arazoek egun ere gizartean bizirik jarraitzen dutela.

Gizarteak gauzak ulertzeko altu eta garbi entzun behar ditu, mezua zuzenean transmititu behar zaio eta entzuleak ahal dela bere burua islatuta ikusiko duen gaur egungo adibideren batekin lotu beharko da esan nahi den hori. Baina nola gauzatu hori dena? Nola heldu jendearengana? Erantzuna garbi dago zein den: antzerkia bera, nola bestela?

Horren adibide dugu Horman Poster konpainiaren apustua. *ANTIGONE edo ezetzaren beharra* antzezlana taulara eramanda irabazi berri dute pasa den martxoan Donostia Saria XXII 2021eko euskarazko antzezlana hoberenari. Epaimahaiaren hitzak errepikatuz, merezitako saria izan da «klasiko bat oso moderno egitea lortu dutelako, estetika izugarriarekin eta, gainera, lehen aldiz, euskaraz».

Gaur egungo entzule bati klasiko bat entzutera zoazela esanda agian ez duzu lehenengoan bere oniritzia jasoko, baina, aldiz, eguneratutako klasiko bat dela esanda, apustu berri bat, baina denok era batera edo bestera gertu sentitzen ditugun gaiak obraren erdigunean mantenduz eginda dagoela azpimarratuz, posible da jendearengana heltzea. Eta era horretan, bi helburu lortuko ditugu. Antzerkiak antzerki den momentutik beregain duen publikoa hausnartzera bultzatzea, eta, bestalde, baita klasiko bat berriro ere jendearen ahotara eramatea.

⁶ Autorearen itzulpena. Hau da jatorrizko argitaratua, lehenengo elkarrizketa italieraz izan bazen ere: «El lobo es un animal que mata y constituye un peligro para el hombre. Pero Apolo, entre otras cosas, también era un lobo. Y también estaban las jóvenes atenienses que se preparaban para transformarse en oseznas en el templo de Artemisa. Ya ve cómo se funden los temas de Chauvet con la mitología. No es posible entender la mitología sin la noción de metamorfosis.»

Lan hau egiteko prozesu luzean zehar, Horman Poster konpainiako Xanti Agirrezabala Zeberiorekin hitz egiteko aukera izan dut eta *ANTIGONE edo ezeztaren beharra* antzezlanaren gidoia irakurtzeko zortea ere bai. Ikus dezagun hitzaurrearen zati bat:

Antigone.

Anti: ezezkoa edo kontrakoa.

Gone: Malgua, moldagarria.

Antigone: Moldaezina.

Kuriosoa, oso kuriosoa gertatzen da moldaezina izanda 2.500 urtetan garai guztietara gehien moldatu den obra dela jakitea. Antigone omen dugu antzerkiaren historian gehien taularatu den antzezlan, baina gure herri txiki honi eragin gutxi egin diola dirudi. Ez da sekula inoiz euskaraz taularatu izan. Gu ere moldaezinak izango ote gara?

(Horman Poster 2021)

«Boterearen inguruko galderak, kezkak eta hausnarketak eguneratzeko ariketa» da antzezlan hau, konpainiako kideen hitzetan. Egia da ez dela hain justu nik itzuli dudan antzerki obra bera, baina pertsonaia eta hari dramatikoa errepikatu egiten dira azken finean: Edipok intzestua egin duela ikusita burua galdu eta bere buruaz beste egin du, Eteokles eta Polinizes gerra betean daude eta Antigona familiaren alde bana lasaitzen ahaleginduko da uneoro, nahiz eta gero beti galtzen bera atera. Aurretik aipatu dut gaur egun mitoen bidez mezuak transmititzeko erari probetxua ateratzeko aukeretako bat gaur egunera ekartzea dela. Bete-beteen asmatu dute Horman Poster konpainiako kideek nola ekarri dituzten oraingo publiko batengana Eteoklesen hitzak eta pentsamendua:

Boteredunak ez dauka errukirik
Botereduna ez da martiria
Botereduna liburuetan agertuko da
Orain, botereduna naizenez aldarrikapen hauek guztiak debekatuta
gelditzen dira
Ezin da esan:

BELDURRIK EZ
IRUZURRIK EZ
TORTURARIK EZ
ATXILOKETARIK EZ
EPAHIKETARIK EZ
BIOLENTZIARIK EZ
MONARKIARIK? EZ, ESKERRIKASKO

Beste hauek ere debekatuta:

ORDENANTZARIK EZ
ERREPRESIORIK EZ
ESTATU KOLPERIK EZ, BOLIVIA AURRERA
INOR EZ DA ILEGALA
AHARI JOKORIK EZ
NUKLEARRA? EZ ESKERRIK ASKO

SAKABANAKETARIK EZ
ZEZENKETARIK EZ

(Horman Poster 2021).

Hori gutxi balitz, zerrenda luze baten ondoren, honela dio Eteoklese:

ETEOKLES.— Baina batez ere
Gutziz debekatuta gelditzen da,
Polinizesen gorpua lurperatzea!

(Horman Poster 2021).

Gaur egungo publiko batentzako idatzita dago dena, baina ez du mitoaren erroa ahazten. Iruditzen zait bete-betean asmatu dutela antzerki konpainiako kideek. Hala ere, eta nire lanera itzuliz, bi antzezlanek komunean dutenari heldu nahiko nioke: Antigona pertsonaiari.

<p><u>Antigonak Ismeneri</u> (Horman Poster 2021)</p>	<p><u>Antigonak Edipori</u> (<i>FenEm.</i> 75-79)</p>
<p>Ismene. Ismene, Polinizes lurperatzera noa. Ba zatoz?</p> <p>Ismene.</p> <p>Gure neba lurperatzera noa. Etorri nahi?</p> <p>Ismene, zure neba lurperatu nahi?</p> <p>Ezer ez erabakitzea ez da aukera bat</p> <p>Ismene. Ezer ez erabakitzea hilda egotea da Ismene. Eta zu, zu ez zaude hilda Ismene.</p>	<p>Heriotza al da zure desira gorena, aita?</p> <p>Hiltzekotan, ni aurretik joanda izan dadila;</p> <p>bizirik jarraitzekotan, ni zure atzetik.</p> <p>Baina aldatu zure asmoak, atera zure lehengo ausardia,</p> <p>eta behin atsekabe horiek garaituta, agindu zure indar handienarekin.</p> <p>Eutsi goiari: halako zorigaitzen artean, hiltzea garaitua izatearen parekoa da.</p>

Ikus dezakegu, modu batera edo bestera, antzera ulertu dugula Antigonaren beraren tonua eta hitz egiteko modua, edo hala dirudi behintzat euren euskarazko testua eta nirea parean jarrita. Esaldi motzak eta firmeak erabiltzen ditu Antigonak, mezua garbi helarazi nahi du eta segurtasuna dario bertso-lerro guztietan eta zuzentzen ari zaion pertsona horren atentzioa uneoro bereganatu nahi du. Horretarako, bere parean duenaren izena errepikatzen du behin eta berriz, galderak botatzen ditu uneoro eta bere iritzia errepikatzen du behin eta berriro birformulatuz. Garbi gera dadin, letra lodiz utzi ditut bi testuetan Antigonak aurrean duen pertsonari egindako deiak. Bestalde, kolore gris argi batekin azpimarratu dut egitura aldetik ia berberak diren bi esaldi: «Ezer ez erabakitzea hilda egotea da Ismene» (Horman Poster 2021); «hiltzea garaitua izatearen parekoa da» (*FenEm. 75 -79*).

Hau guztia esan ondoren, uste dut garbi geratu dela mitologiak gaur egun izan dezakeen eragina benetan handia izan litekeela defendatzen dudala. Lan honetan zehar aukera izan dut nik neuk ezagutzen ez nituen erreferentzia mitologiko batzuen inguruan sakontzeko eta aurretik sekula hausnartu gabeko gaiei heldu eta ur handitan murgiltzeko. Besterik gabe, Steinerren esaldi batekin eman nahiko nioke amaiera lanari:

Sage, wo ist Athen? ('Esadazu, non dago Atenas?') galdetzen zuen Hölderlinek bere *Der Archipelagus* ereserkian. Renanek erantzun zuen Atenas gizaki modernoaren barruan ezkutatuta zegoela eta munduak salbatzeko zuen aukera bakarra zela Partenoira itzultzea eta basakeriarekin lotzen zuen oro albo batera uztea: *Le monde ne será sauvé qu'en revenant à toi, en répudiant ses attaches barbares.* (Steiner 2013: 18)⁷

⁷ Autorearen itzulpena. Hau da jatorrizko argitaratua: «*Sage, wo ist Athen?* («Dime, ¿dónde está Atenas?») Preguntaba Hölderlin en su himno *Der Archipelagus*. Renan respondió que Atenas se hallaba oculta dentro del hombre moderno y que el mundo sólo se salvaría cuando retornará al Partenón y rompiera sus vínculos con la barbarie: *Le monde ne será sauvé qu'en revenant à toi, en répudiant ses attaches barbares.*»

ITZULPENA

EDIPO

Guraso itsu honen gidari
eta aitaren nekearen aringarri bakar,
ez dakizu zein garrantzitsua den niretzat, ene alaba,
zu eduki izana,
honela bada ere.⁸
Utzi bakarrik zure aita zorigaiztokoa.⁹
Zergatik zuzentzen dituzu nire urrats baldarrak?
Utzidazu galtzen,
neuk bakarrik hobeto aurkituko dut-eta bila nabilen bidea, 5
bizitza honetatik aldenduko nauen lasterbidea,
eta lasaiago geratuko dira zeru-lurrak
nire buru beldurgarri hau ikusi beharrik gabe.
Zein gutxi egin dudan esku honekin!
Ezin dut egunaren argia ikusi,¹⁰ nire krimenaren konplizea,
baina ni ikusten naute. 10
Askatu lotuta neukan eskua
eta utzi nire oin itsuei nahi duten erara joaten.
Joango naiz, joango naiz ene Ziteron horrek
bere gailur malkartsuak erakusten dizkigun lekura;
Akteon, harkaitzez jositako mendian zehar ibili ondoren,
txakurren ohi ez bezalako ehizaki baten gisan 15
hilda erori zen lekura;
baso ilunean barrena
eta oihaneko haran laiotzen itzaletan zehar,
ama batek bere ahizpak (jainkoak xaxatuak) gidatu zituen lekura,
non, bere gaiztakeriarekin harro,
tirtso astinduan iltzatutako burua altxa zuen;¹¹
edo Zetoren zekorra gorputz gorrotagarria¹² 20
arrastaka eramanez korrika ibili zen lekura,
non oraindik sasi arantzatsuen artean odolak oroitarazten baitu zezen
basatiaren ihesaldia;
edo Inoren arroka bere gailur gorenari esker
itsaso sakonaren jaun eta jabe den lekura,
ohiz kanpoko krimenetik ihesi
uretara salto egin eta bere burua eta semea urperatuz,
beste ohiz kanpoko bat¹³ hasi zuen amaren lekura;¹⁴ 25
A ze zortea, zoriak hain ama onak eman dizkienena!

⁸ Intzestuz, hain zuzen, Edipok bere amarekin izandako alaba delako Antigona.

⁹ Orain konturatu berri da egin duen guztiaz: bere aita hil du eta bere amarekin seme-alabak izan. Zorigaitzeko izakia dela uste du.

¹⁰ Gertatutakoa jakin ondoren, bere begiak beren lekuetatik atera ditu eta itsu geratu da.

¹¹ Penteo Tebasko erregeaz ari da. Aipaturiko ama hori Agave da, Penteoren ama, eta ahizpak bakanteak (menadeak). Agavek eta bakanteek (Dioniso jainkoak xaxaturik) Penteo hil zuten piztia zelakoan; Penteoren burua tirtsoan iltzaturik eramanez zien tebastarrei, bere aita zela jakin gabe.

¹² Dirtzeren gorputza da gorputz gorrotagarria, Antiopek gorroto duelako. Ikus *Zeto*.

¹³ Inok Melizertes semea hil zuenean egin zuen lehenengo ohiz kanpoko krimena; eta gero, arrokatik itsasora salto egin eta bere buruaz beste egitean, beste ohiz kanpoko krimen bat.

¹⁴ Ziteron mendian kokatutako pasarte mitologikoen zerrenda izan da.

Bada baso hauen babesean nirea den beste leku bat,
deika daukadana: pauso arinez hurbilduko naiz.
Nire urratsek jarraituko dute, joango naiz ezinean
eta gidaririk gabe bada ere. 30
Zergatik daukat bizilekua nire zain?
Itzulidazu heriotza, Ziteron,
eta itzuli nire babesleku hura,
heldutan hil nadin umetan egin behar nukeen gisan.¹⁵
Ekin berriro hainbeste atzeratutako zigorrari
zuk, hiltzen duzunean zein barkatzen duzunean, 35
beti hain odolko, hain basati, hain krudel, hain anker zaren horrek.
Gorpu hau¹⁶ aspaldidanik duzu zurea: amaitu ene aita eta amaren eskaria.
Nire arimak desio du atzeratutako zigorra gauzatzea.
Ene alaba, zergatik atxikitzen nauzu maitasun kaltegarri horrekin?
Zergatik atxikitzen nauzu? Nire aita deika daukat.¹⁷
Banoa, banoa, utzidazu; 40
bere erreinu galduaren enblema odoltsua eskuetan,
Laio haserre bizian dago.
Begira, hor da; esku etsaiekin erasotzen ditu nire betzulo hutsak
eta baita haztakatu ere. Ene alaba, ikusten al duzu nire aita?
Nik bai. Bota behingoz hats etsai hori,
espirtu iheslari horrek; ausarta zara, baina nahi duzunerako bakarrik! 45
Egiozu uko hainbeste atzeratutako sufrimendu motel honi,
eta onartu heriotza, heriotza bere osotasunean.
Zergatik daramat nire bizi hau axolarik gabe arrastaka?
Jada ezin al dut krimenik egin?
Bai, noski, dohakabe honek; alde zuretik ohartaraziko zaitut:
urrundu zure aitarengandik, ihes egin, neskato.¹⁸ Nire amarena eta gero,
beldurrak nago zer gertatu ere. 50

ANTIGONA

Aita, ezerk ez du nire eskua zure gorputzetik askatuko;
inork ez nau zure ondotik bananduko.
Nire anaiek egin dezatela borroka, ezpata eskuetan,
Labdakoren¹⁹ etxe ospetsua eta erresuma aberatsa eskuratzeko asmoz.
Aitaren erresumako garrantzitsuena neuk daukat: 55
aita bera. Ez didate nire anaiek indarrez kenduko;
ez erresumaren jabe egin eta Tebasko aginte-makila bereganatu duenak,
ezta Argosko tropak bere agindupean dituen beste anaiak ere.²⁰
Nahiz eta Jupiterrek trumoia jo eta munduaren amaiera ekarri,
nahiz eta haren tximistak elkarrekin korapilatutako gure besoetan erori, 60
ez dut esku hau askatuko. Debekatzen badidazu ere, aita,
zuk nahi ala ez, erakutsiko dizut bidea, zuzenduko ditut zure urratsak,

¹⁵ Ziteron mendiaren magalean utzi zuten jaioberritan bere benetako gurasoek, Laiok eta Jokastak.

¹⁶ Heroi bizia gorpu gisa agertzen da; azken finean, heriotza luzea adierazten du.

¹⁷ Edipok haluzinazio moduan ikusten du Laio aita.

¹⁸ Orain arte alaba deitu dio (*nata*), baina bere amarena jakin ostean, beldurra ematen dio alabarekin ere gauza bera egingo ote duen.

¹⁹ Ediporen aitona, Laioren aita, Tebasko errege izana.

²⁰ Eteokles da, adosturikoaren aurka, Tebasko boterea beretzat atxiki zuena, eta Polinizes Argosko tropak Tebasera eraman zituen.

zure gogoz kontra bada ere.
 Lautadetara zoazela? Baita ni ere. Mendialdera joatea erabakitzen duzula?
 Ez dizut kontra egingo, baina zure aurretik joango naiz.
 Eraman nazazu gidari bezala, nahi duzun lekura.

65

Hautatzen duzun bidea biontzat izango da.
 Ni gabe ezin zara hil; nirekin ordea, bai.
 Hemen, bailara sakon honetan, bada gailentzen den harkaitz altu bat,
 urrunean bere oinetan duen itsaso zabalari begira dagoena.
 Harantz joango gara? Hemen harkaitz biluzi bat dago zintzilik;
 hango lurretan, berriz, arrakalak gailentzen dira haitzarte malkartsuetan

70

barrena.
 Harantz joango gara? Uhar oldarkorra dator hemendik,
 amiltzen ari den menditik eroritako zatiak biraraziz.
 Joango gara hara korrika? Ni aurretik joatekotan, nahi duzun lekura joango
 naiz.
 Ez dizut erregutzen, ez dizut aholkurik ematen. Desagertu egin nahi al
 duzu?
 Heriotza al da zure desira gorena, aita?

75

Hiltzekotan, ni aurretik joanda izan dadila;
 bizirik jarraitzekotan, ni zure atzetik.
 Baina aldatu zure asmoak, atera zure lehengo ausardia,
 eta behin atsekabe horiek garaituta, agindu zure indar handienarekin.
 Eutsi goiari: halako zorigaitzen artean, hiltzea garaitua izatearen parekoa
 da.

EDIPO

Nondik sortu zaigu gure etxe izugarri honetan ale eredugarri hau?

80

Nondik sortu zaigu bere leinuaren aldean hain ezberdina den neskato hau?
 Zori on adeitsu hori, etsi al duzu?
 Nire seme-alabetakoren bat eginbidetsua?
 Sekula ez da halakorik jazoko, ondo dakit nire patua zein den;
 kalte egiteko bada, orduan bai. Natura bera ere
 lege berrien alde jarriko da: errekek atzerako bidea hartuko du

85

iturburuari bere ur-lasterrak itzuliz,
 eta Feboren argi-zuziak gaua ekarriko du, eta Hesperok sortuko du eguna.²¹
 Nire zorigaitzei beste bat gehitzeko,
 gu ere eginbidetsu izango gara.
 Ediporen salbazio bakarra salbatua ez izatea da.

90

Aitari mendekua hartzeko aukera izan dezadala,
 oraindik mendekua hartu gabe dago eta.
 Ene eskuineko esku enea,
 zergatik luzatzen duzu hainbeste, axolagabe, nire zigorra eskatzeko
 momentua?
 Orain arte ordaindurikoa
 amari eman zenion.
 Askatu aitaren eskua, neskato kementsu horrek;
 nire hileta gibelatzen baino ez zara ari,
 eta oraindik bizirik dirauen zure aitaren hileta-zeremonia luzatzen.

95

²¹ Izatez Hesperok ekartzen du gaua eta Febok eguna. Ezinezkoen zerrenda egin du (*adynaton* edo *impossibilia*).

Estali behingoz gorputz gorrotagarri hau lurrez;
 intentzio onenarekin bada ere, gaizki zabilta:
 aitarenganako maitasun deitzen diozu lurperatu gabeko aita arrastaka
 eramateari.

Hil nahi ez duena horretara derrigortzea
 hiltzeko presa duenari heriotza oztopatzearen parekoa da,
 hil nahi duenari hiltzen ez uztea
 erailtzearen parekoa. 100

Eta, hala ere, ez dira gauza bera. Uste dut bigarrena are larriagoa dela:
 nahiago dut nire heriotza derrigortua izatea, lapurtutako eskubidea izatea
 baino.

Eman amore, neskato, nire bizitzarekiko zein heriotzarekiko eskumena
 nire esku dago eta.

Nahi nuelako utzi nuen errege-boterea,
 baina oraindik ere mantentzen dut neure buruarekiko boterea. 105

Bidelagun leiala bazara, eman ezpata zure aitari,
 baina nire aitaren hilketan erabilitako ezpata ezaguna.

Emango al didazu? Edo akaso nire semeek dute hori ere,
 nire erresumarekin batera?

Dagoen lekuan dagoela, egingo du bere lana.

Hantxe gera dadila, eurentzat. Eduki dezatela neure semeek,
 baina biek. Hobe duzu sua prestatu 110
 eta tumulu handi bat atondu;

nik neuk egingo dut salto su-meta altura;
 txinpartekin bat egingo dut, hileta-txondorrera igo
 eta bular gogor hau urtuko dut eta errauts bihurtu
 nire baitan bizi den oro. Non da itsaso krudela?

Eraman nazazu arroka altuak dituen bailara malkartsu batera, 115
 Ismeno²² oldarkorrek bere ur-lasterrak daramatzen lekura,
 eraman nazazu piztiak dauden tokira, itsasora, amildegi batera,
 nire gidari bazara.

Han hil nahi dut, Esfingeak²³ arroka altu batean eserita 120
 erdi animalia erdi gizakiaren aho harekin igarkizunak botatzen zituen
 lekuan bertan.

Zuzendu nire urratsak harantz; utzi han zure aita;
 zorigaiztoko leku hura hutsik egon ez dadin,
 jarri han munstro are okerrago bat. Arroka horretan eserita
 iragarriko dut nire patu iluna,
 eta inork ezingo du igarkizunaren erantzuna aurkitu.

Asiriarrak erregearen²⁴ lurrak goldatzen dituzuen guztiok, 125
 Kadmoren sugeak famatu bihurtutako
 oihan sakratua —Dirtze sakratua ezkututzen duena—
 erreguka gurtzen duzuen guztiok,²⁵

²² Beoziako ibaia.

²³ Esfingearen igarkizunak asmatu zituen bakarra izan zen Edipo, Tebasko hiria salbatu zuen munstroarengandik, eta horregatik izendatu zuten bertako errege.

²⁴ Kadmo da asiriarrak erregea, Tebasko hiriaren fundatzailea.

²⁵ Tebastarrak dira aurreko hiru lerroetan aipaturikoak: Kadmoren lurrak, Kadmok Tebasen sorreran hil zuen sugea, eta Dirtze iturburu bihurturik bizi den Ziterongo basoa.

Eurotasen ura edaten duzuen guztiok,²⁶
 eta bikiengatik²⁷ famatu den Espartan bizi zaretenok,
 eta Eliden, zein Parnason, nahiz Beoziako landa emankorretan
 segan aritzen zareten nekazari guztiok, 130
 adi egon zaitezte:²⁸
 Tebasko izurri krudelak,
 erritmo ilunez ahoskatutako hitz dolugarriak elkartuz,
 honen antzeko zein galdera mahaigaineratu zuen?
 Ebatzi ezinezko zein igarkizun?
 «Aitonaren suhi eta aitaren etsai,
 seme-alaben anai eta anaiei aita ere bai. 135
 Erditze bakarrean izan zituen amonak
 senarraren seme-alabak eta bere bilobak.»²⁹
 Nork azalduko ditu halako izugarrikeriak?
 Nik neuk ere, Esfinge garaituaren gorpua eraman zuenak,
 zalantzak izango nituzke eta denbora beharko nuke
 ene patua interpretatzeko.
 Zergatik jarraitzen duzu hitzak alferrik xahutzen?
 Zergatik diharduzu erreguka nire bihotz krudela samurtu nahian? 140
 Nire arimak hartu du jada erabakia:
 azken arnasa emango dut aspaldidanik heriotzarekin borrokan ibili ondoren,
 eta iluntasunera iritsiko naiz, nire krimenarekin alderatuta
 argiegia baita gau hau.³⁰
 Tartaron³¹ lurperatua izan nahi dut,
 baita Tartarotik haratago ere, haratago zerbait egonez gero. 145
 Orain, azkenean, nire desira da lehen betebeharra zena.
 Ezin zait heriotza eragotzi.
 Ez al didazu ezpatarik emango?
 Erortzeko arriskua duten bideak itxiko al dizkidazu, eta
 lepoa soka-laster estuan sartzea debekatuko al didazu?
 Landare hilgarriak kenduko al dizkidazu?
 Zertarako balioko du ba zu kezkatzeak? 150
 Heriotza leku guztietan dago. Ezin hobeto iragarri zuen jainkoak:
 edonork ken diezaioke bizia beste norbaiti,
 baina inork ezin dio heriotza lapurtu,
 hamaika bidek baikaramatza beragana.
 Ez dut ezer eskatzen; nire arimak badaki nire eskuineko eskua nola erabili,
 armagabe bada ere. Ene eskuineko esku enea, zatoz orain zure kemen 155
 guztiarekin,
 etorri samin bizian, indar betez.
 Ez dut leku zehatz batean nahi zauria:
 gorputz guztia da errudun. Burutu nire heriotza nahi duzun lekutik.
 Urratu nire bularraldea eta ateraidazu bihotza,

²⁶ Espartaren irudia da Eurotas ibaia, hiri hori zeharkatzen baitzuen.

²⁷ Kastor eta Polux anaia bikiei buruz ari da.

²⁸ Zerrendak ohikoak izaten dira Senekaren obretan. Kasu honetan, Ziteron mendian jazotako kontakizun mitologikoetako pertsonaiak aipatzen ditu alde batetik, eta Tebastik gertu kokatzen diren lurak bestetik.

²⁹ Esfingea imitatzen saiatzen da, bere bizitza igarkizun baten gisan kontatuz.

³⁰ Itsu dagoenez iluna besterik ez du ikusten, hots gaua.

³¹ Inframunduaren lur azpiko mundua.

hainbeste krimen egiteko kapaz izan dena;
 biluztu nire erraietako bihurgune oro; 160
 nire ahutzek durundi egin dezatela hainbeste kolpe jasotzean,
 eta odolustu daitezela nire zain urratuak zure azazkalak iltzatzean.
 Edo bideratu zure amorrua ohi duzun lekura: ireki berriro zauri hauek
 eta blaitu nire odolez eta zornez.
 Eta atera hortik nire arima gogor bezain menderaezina. 165
 Eta zuk, aita —zauden lekuan zaudela
 nire zigorraren lekuko,
 ez dut sekula pentsatu halako krimena barkatzeko
 zigorrik existitzen denik, sekula ez;
 halako heriotza honek ez nau asebeteko,
 eta ez ditut zorrak kitatu zati honekin; 170
 gorputz-atalez gorputz-atal hil nahi izan dut zugatik—³²
 eskatu behingoz zor dizudana.
 Nire zigorra betetzen ari naiz orain,
 lehen eskaini nizun hileta bezain apain.
 Zatoz, estutu barrurantz ene eskuineko eskua
 bera bakarrik ez da-eta gai;
 eta hondoratu gehiago.
 Orduko hartan libazioa xurgatze txiki batekin egin zen nire buruan:
 hain txiki eta hain herabe,
 nire begiak baino ez zituen atera, 175
 bere atzetik joan nahi zutenak.
 Nire baitan jarraitzen du,
 oraindik ere,
 nire baitan jarraitzen du
 orduko asmo berberak:
 esku honek ekiteari uko egin
 eta begiek berenari gogor heldu ziotenean bezala.
 Hona hemen egia, Edipo:
 adore gutxiago izan zenuen begiak erauztean,
 erantzukizuna onartzean baino.
 Sartu orain eskua zure garunean. 180
 Hiltzen hasi nintzen leku beretik amaitu heriotza.

ANTIGONA³³

Ene aita eskuzabal hori, entzun ezazu lasaitasunez, arren,
 zure alaba errukarriak diotsuna.
 Ez dut asmorik zu zure lehengo etxe famatuaren distiretara eramateko,
 ezta handitasuna eta boterea gailentzen ziren zure erreinu hartara ere; 185
 ez dizut utziko zure amorru horren pisua,
 denborak berak ezabatu ezin izan duena,
 zuk hain baketsu eta hain bare
 bizkar gainean eramaten.
 Baina hau legokioke zu bezain gizon boteretsuari:
 mina jasan eta minari ihes egin gabe,

³² Begiak galtzeari buruz ari da.

³³ Antigonaren monologo hau *suasoria* erako hitzaldi labur bat da eta argudioak eskaini nahi ditu Edipo konbentzitzeko, bere buruaz beste egin ez dezan.

zorigaiztoen mirabe
 izan beharrean, izatea haien errege.

Ausardia, ene aita, 190
 ez da zuk uste duzun bezala bizitzari beldur izatea,
 zorigaitzei aurre egitea baizik:
 beste aldera begiratzea
 eta atzera pausuak ematea
 ez da ausardiaz jokatzeari.
 Patuari bizkar eman dionak,
 bereak zaizkion ondasunak errotik atera
 eta beregandik urrundu dituenak,
 bere zorigaitzak are gehiago okertu dituenak, 195
 jainkorik behar ez duen horrek,
 zergatik egingo lioke ihes heriotzari?
 Zergatik arituko litzateke haren bila?
 Biak ala biak
 koldar baten erabakiak!
 Heriotza desio duen inork ez luke gutxietsiko.
 Zorigaitzen zerrenda luzatu ezin dezakeena baino
 ez da bizi leku seguruan gaurdaino.

Ba al da, akaso, eta nahi balu ere, 200
 zure zorigaitzen zerrenda luza dezakeen jainkorik?
 Zeu ere ez zara gai-eta,
 ez bada heriotza merezi duzula uste duzulako.
 Ez duzu merezi, eta zure bularra ez da errudun.
 Errugabea zara, ene aita, arren entzun:
 ez duzu inongo heriotzarik merezi,
 egin kasu, ez zara errudun.

Esan dezatela jainko-jainkosek nahi dutena, 205
 ez zara errudun, arren entzun.
 Zerk atera zaitu zure onetik?
 Zerk ireki dizkizu aurrez itxitako zauriak?
 Zerk zaramatza infernuaren pareko diren bizilekuetara?
 Zerk bota zaitu handik?
 Argirik ez ikusteak? Hori baduzu jada.

Harresi altuko zeure etxe nobletik zein aberritik ihes egiteak? 210
 Bizirik egonda ere, aberria hilik dago zuretzat.
 Zure sema-alabengandik eta amarengandik egiten al duzu ihes?
 Zoriak kendu dizkizu jada begien aurretik.
 Heriotzak lapurtu ahal digun oro kendu dizu zuri bizitzak.
 Tronuaren ezegonkortasuna izan al da?

Zeure aginduz desagertu ziren 215
 zure zori oneko garaietan zure inguruan zebiltzanak
 Aita, zeri egiten diozu ihes?

EDIPO

Neure buruari egiten diot ihes,
 krimen ororen konplize den nire bularrari,
 esku honi,
 zeru honi

eta jainko hauei;
 eta baita errurik gabe egin nituen krimen izugarriei.

Zeres³⁴ gari-ekarlea sortu zen lur hau zapaltzen al dut? 220
 Aire hau arnasten al dut guztia pozoitzeko gai den nire ahoaz?
 Egarrria asetzen al dut ur-zurrutada batez,
 edo elikatzen gaituen amalurraren
 edozein fruitu jateko parada al daukat?
 Bekaturik gabeko zure eskua ukitzen al dut
 nik, izaki kriminal, intzestu-egile, higuingarri honek?
 «Aita» edota «seme» entzuten al dut
 soinuak entzuten ditudan era berean? 225
 Bide horiek moztetik izango banu sikiera...
 nire eskuekin aterako nituzke errotik
 soinuak heltzen diren bideak
 eta hitzei bide ematen dizkieten xendak.
 Ene alaba, zure zorigaitzeko aita hau
 aspaldi egongo zen zugandik urruti,
 nire krimenen parte zaren zugandik aparte. 230
 Inpietatea sustraitu da nigan
 eta uneoro biziagotu,
 eta entzumenak gogorarazten dizkit
 zuen bidez, ene begiok, ikusi ezin ditudanak.
 Zergatik ez dut betiko itsualdian murgildutako buru hau
 Diterenitzal amaiezinetara jaurtitzen?³⁵
 Zergatik lotzen ditut nirekin kate motzean nire maneak?³⁶
 Zergatik jarraitzen dut bizidunen artean alderrai 235
 lurrarentzat lan gehigarria baino ez banaiz?
 Zein da falta zaidan okerkeria?
 Dena desagertu da:
 ene erreinua, ene gurasoak, ene seme-alabak,
 are ene jakinduriaren ospe ezaguna bera ere.
 Zoria ene etsai handiena izan da:
 malkoak baino ez zizkidan utzi 240
 eta neure buruari nizkion erauzi.³⁷
 Eman amore.
 Nire arimak ez du inongo erregurik onartuko,
 aurretik inoiz eman gabeko krimenen pareko
 zigorra baino ez du onetsiko.
 Zein litzateke haien pareko?³⁸
 Hiltzera kondenatua jaio nintzen.
 Akaso beste inork izan al du halako zorte ilunik? 245
 Oraindik egun argirik ikusi gabe,
 oraindik itxita zegoen sabeleko kartzelako mirabe,

³⁴ Nekazaritzaren jainkosa.

³⁵ Inframundura, hain zuzen, Dite baita inframunduko jainkoa.

³⁶ Erromatarren kulturaren, etxeko hilen espiritu edo arimak.

³⁷ Begiak erauzi ditu.

³⁸ Aita hil du eta amarekin seme-alabak eduki ditu; uste du ez dagoela krimen horien parekorik.

eta beldur zidaten.³⁹
 Jaioberritan heriotzak eramaten ditu haur ugari,
 argi berri baterantz egiten dute igeri;
 nik, aldiz, heriotza itzal leial izan dut beti.
 Amaren erraieran esaten die heriotzak beste batzuei 250
 “ongi etorri!”.
 Patu goiztiarra, inondik inora ere.
 Baina, delitua al da hori?
 Ezkutatua, ezezaguna,
 eta oraindik biziko ote nintzen jakin gabe,
 izendatu ninduen jainko batek
 krimen beldurgarri baten egile.
 Hitzez jarraitu zuen ene aitak nire aurkako testigantza;
 burdina goritu
 eta gero nire oinak horrekin zulatu;
 basoaren barrenera bidali, 255
 zorigaiztoko Ziteronek maiz erregeen odolez elikatzen dituen
 piztien eta hegazti krudelen bazka bihurtzeko.
 Baina jainko batek zigortu
 eta aitak baztertu duen horri,
 heriotzak berak ere egiten dio ihes.
 Sinesgarritasuna eman diot Delfosi:⁴⁰
 ene aita eraso nuen, erailketa sakrilego batean eraitsi. 260
 Beste pietate-ekintza batek baietz hori ordaindu:
 ene aita erail nuen,
 baina ama maitatu.
 Lotsa eragiten al du ezkontza horretaz
 eta gure eztei-zuziak aipatzeak?
 Eta gure eztei-zuziak aipatzeak?
 Zeure nahigabea nahigabe,
 derrigortu ezazu zeure burua zigor hau pairatzera.
 Hitz egin ezazu gertakari ezezagun hartaz,
 gertakari izugarri bezain ohiz kanpokoaz.
 Ikusiko duzu nola beldurtuko diren herri guztiak. 265
 Belaunaldi guztiak jakin dezatela jazotakoa.
 Parrizida bat ere lotsatuko litzateke:
 ene aitaren ohera eraman nituen
 ene aitaren odolaz zikindutako eskuak;
 eta krimen haren ordainetan onartu nuen
 okerkeria are okerragoa.
 Ezer gutxi da aitari egindako ekintza lotsagarria: 270
 neurekin batera
 sartu nuen ene ama ohera,
 eta krimen hori gutxi zelakoan,
 haurdun utzi gainera.
 Mundu honetan ez dago delitu okerragorik,
 eta halakorik egonez gero

³⁹ Senekak jakintzat ematen du Ediporen mitoa eta ez du azalpenik ematen; Ediporen beraren ikuspuntua bakarrik ematen du: bera jaio baino lehen, iragarrita zegoen Ediporen patua.

⁴⁰ Delfosko orakuluak aurreikusi zuen Ediporen patua.

hartarako kapaz direnak⁴¹ ekarri ditugu guk mundura.
 Uko egin nion ene aita erail izanaren ordainsari modura
 jaso behar nuen zetro hari, 275
 eta zetro hark beste esku batzuei itzuli dizkie armak.
 Ondo asko ezagutzen dut ene erreinuaren patua:
 inork ez du eskuratuko
 ez badu isurtzen odol madarikatua.
 Aita honen arimak
 halako zorigaitzak iragartzen ditu.
 Etorriko den hondamendiaren haziak
 landatuak daude jada. 280
 Itunarekiko leialtasuna gutxiestea zer den...⁴²
 Batak ez du inondik inora ere
 duen boterea alboratu nahi.
 Besteak bere eskubideari heldu dio
 eta jainkoei
 —itun hautsiaren⁴³ testigu ernai—:
 erbestetik Argosko tropei egin die dei,
 eta greziar hiriei.
 Ez da arina
 erabat akitutako Tebasera datorren 285
 hondamendia:
 armak,
 sugarrak,
 zauriak.
 Hurbil dituzte denak ala denak,
 baita horiek baino zorigaitz handiagoak ere.
 Inork ez dezala ahaztu direla
 neure semeak.

ANTIGONA

Bizitzeko motiborik ez baduzu, aita,
 nik neuk emango dizut bat,
 bakarrarekin nahikoa:
 bideratu aita baten gisan
 amorrurekin burua guztiz galdu duten zure semeak.
 Zuk zeuk soilik galaraz ditzakezu 290
 gerra bidegabe baten mehatxuak.
 Zuk zeuk soilik itzul dezakezu bakea herritarren artera,
 lasaitasuna aberrira,
 leialtasuna urratutako itunera.
 Zeure buruari bizitza ukatzea erabakitzen baduzu,
 zurekin batera beste askori ere ukatuko diozu.

EDIPO

Maite al dituzte, akaso,

⁴¹ Eteokles eta Polinizesi buruz ari da.

⁴² Eteokles eta Polinizesen arteko itunari buruz ari da: bi anaiak ituna egin zuten tronua txandaka hartzeko.

⁴³ Eteoklesek ez zuen paktua bete: ez zion anaiari tronua bere txandan utzi nahi izan eta, erantzun gisa, Polinizes. Argosko tropen laguntzarekin. Tebasi eraso egiteko prest dago.

euren aita
eta justizia, 295
odol-gosez, botere-gosez,
arma-gosez, traizio-gosez
dauden kriminal madarikatu horiek,
labur esanda, ene semeek?
Norgehiagoka lehiatzen dira doilorkeria orotan.
eta ez dute oztoporik ikusten
haserreak amildegi aurrera eramaten baditu.
Bidegabekeria jaio denak 300
ez du ezer bidegabeko denik sentitzen.
Euren aita atsekabetuarekiko
zein aberriarekiko
errespetuak ez ditu hunkituko.
Bihotza daukate
botereak itsututa,
gutziz zoratuta.
Badakit norantz doazen,
badakit zertara heltzeko gai diren.
Horrexegatik nahi dut hil lehenbailehen,
etxeko beste inor ni baino errudunagoa izan baino lehen. 305
Zergatik egiten duzu negar, ene alaba,
nire belaunak besarkatuta?
Zergatik saiatzen zara erreguka
hezigailza den norbait hezten?
Hori besterik ez du zoriak
ni hunkitzeko,
beste inork garaitu ez nauen hau.
Zuk soilik,
eta ez beste inork,
bigundu dezakezu ene bihotz gogorra.
Gure etxean zuk soilik
irakatsiko didazu,
eta ez beste inork, 310
zer den alaba baten begirunea.
Ezer ez da pisutsua edo zorigaitzekoa niretzat,
zuk nahi zenuena bada.
Agindu besterik ez duzu.
Edipok Egeo itsasoa zeharkatuko du igerian⁴⁴
zuk hala agintzen baduzu,
eta lurra siziliar mendietan behera isurtzen dituen 315
suzko bolenugarra ere hartuko du,⁴⁵
eta dragoiaren aurrean jarriko da,
parez pare,
Herkulesek bere basoan egindako lapurretengatik

⁴⁴ Leandrok gauero egiten zuen moduan, Hero maitearekin elkartzeko. Hemen, alabarekiko maitasunaren erakusgarri litzateke.

⁴⁵ Etna sumendiari buruz ari da.

haserretzen bada ere;⁴⁶
zuk hala agintzen baduzu,
gibela eskainiko die hegaztiei;⁴⁷
zuk hala agintzen baduzu,
are bizitzeko ere prest dago.⁴⁸

MEZULARIA

320

Errege jatorriko horri,
eredu entzutetsu izateko jaio zaren horri,
Tebasek,
anaiarteko gerra baten beldur,
zuri eskatzen dizu babesa
eta gure arbasoen etxeak zuzietatik babestea.
Ez dira mehatxuak soilik,
zorigaitza ate-joka dugu jada.

Boterea

eta aurretik adostutako txandakatzea
eskatzen dituen anaiak

gerrara daramatza Greziako herri guztiak.

325

Zazpi kanpamentuk inguratzen dute Tebasko harresia.⁴⁹

Lagundu gaitzazu!

Gerra bat eta krimen bat galaraziko dituzu batera!

EDIPO

Krimenak galarazten dituen pertsona al naiz, akaso,

eta jendearen eskuetan gertukoena odolik ez jartzen irakasten duena?

330

Legaltasunaren maisu ni?

Seme-alabenganako maitasun gupidatsuaren eredutzat al naukazu?

Nire delituen ereduak baino dituzte imitatzen,

eta orain niri jarraitu besterik ez dute egiten.

Goretsi egiten ditut,

eta adeitasunez gogoratu.

Egiten dutena egiten dutela,

aita honek merezi duen edozer egitera bultzatuko ditut.

Ea ba, ene ondorengo loriatsuak,

froga ezazue ekintzekin zeuen jatorrizko zintzotasuna.

335

Gainditu nire ospea eta arrakasta,

eta egin zerbait zeuen aitak ikus dezan

orain arte bizirik irautea zerbaitetarako izan dela.

Egingo duzue.

Badakit:

⁴⁶ Hesperideen Lorategian, dragoiak zaintzen zituen urrezko sagarrak; Herkulesek dragoia lokartarazi zuen eta sagarrak lapurtzea lortu zuen.

⁴⁷ Titioren zigorra gogorarazten du. Leto bortxatzen saiatu ondoren, Tartarora bidali zuten eta han bi putretzarrek jaten zuten Tito hilezkorraren gibela, etengabeko eta betiereko oinazea eraginez.

⁴⁸ Edipok iritzi aldatsen du azkenean, ustekabea. Horrelako aldaketak ohikoak dira Senekaren lanetan, eszena amaieretan; hemen, agian inoiz baino ustekabeagoa. Aipagarria da aitaren eta alabaren ohiko rolak alderantziz agertzea: alabak agintzen du eta aita edozertan obeditzeko prest dago.

⁴⁹ Tebasko zazpi ateen aurrean, Polinizesek zazpi kanpamentu ezarri zituen, Argostik ekarritako gudalburu banarekin. Hortik dator "Zazpi Tebasen aurka" esaldia (Eskiloren tragediaren izenburua).

horretarakoxe jaio zarete.
 Zuen prestutasun handi horrek
 ezin du halako krimen arin eta arrunta deuseztatu.
 Presta itzazue armak, 340
 egiezue eraso etxeetako jainkoei
 eta landatu sua
 zeuen sorterrian.
 Nahastu dena,
 hondatu guztia,
 apurtu harresia goitik behera,
 eraman arrastaka harri puska oro,
 lurperatu jainko-jainkosak tenpluen azpian,
 urtu zartatutako Lareak,⁵⁰ 345
 eror dadila neure etxea goitik behera,
 zimenduetatik hasita.
 Bihur dadila hiria errauts...
 eta lehen sutea has dadila neure ezkon-ohean.

MEZULARIA

Baretu zure minaren kemen bortitza,
 utzi zure herriaren sufrimenduari zu erreguz limurtzen,
 eta etorri zure semeen artean bake lasaia bermatzera.

EDIPO

Zentzuzko asmoak dituen adineko gizon bat ikusten al duzu? 350
 Bake lasaia nahi duen norbait bitartekari izatea nahi al duzu?
 Amorruez puztua daukat arima,
 min izugarriaz borborka.
 Zoriak edota gazte batzuen eromenak
 has dezaketen hondamendia baino handiagoa dut desira.
 Orain artekoa bezalako gerra zibil bat ez da nahikoa, 355
 anaia batek bestearen kontra egitea.
 Hori bera ere ez da izango nahikoa,
 gure ohiturei jarraikiz,
 beharrezkoa litzatekeen sakrilegioa gauzatzeko,
 nire ezkontzaren parekoa.
 Eman armak amari.⁵¹
 Inork ez nau baso honetatik aterako:
 harkaitz zulatu batean ezkutatuko naiz,
 edota sastraka lodien azpian gordeko. 360
 Hortik zelatatuko ditut kanpoko zurrumurru alderraiak,
 eta ahal bezala entzungo dut anaien arteko gerra krudelen berri.

⁵⁰ Erromatarren kulturen etxeetako jainkoak ziren Lareak. Neronek benetan agindu bide zuen jainko-jainkosen estatuak urtzea.

⁵¹ Jokastari buruz ari da, zalantzarik gabe, baina ez dakigu Jokastaren suizidioa iradokitzen duen, ala semeek ama hiltzea, edo are semeek ama bortxatzea.

ERREFERENTZIA MITOLOGIKOAK

A

AGAVE

Kadmo eta Harmoniaren alaba. Ziteron mendian Dionisok antolatutako festa batean piztia batekin konfunditu eta bere seme Penteo hil zuen, garai hartan Tebasko errege zena.

AKTEON

Ehiztari abila izateagatik famatu zen Akteon. Ziteron mendian hil zen, bere ehiza-txakurrek janda.

ANTIGONA

Edipo eta Jokastaren alaba da. Bere patu mingarria jaio baino lehen hasten da jada: Jokasta (ama) Ediporekin ezkontzean, senar berria hain zuzen bere semea dela jakin gabe (ikus *Edipo*). Beraz, Jokasta aldi berean da Antigonaren ama eta amona, eta Edipo, berriz, Antigonaren aita eta anaia. Egia guztiaz jabetzean, bere buruaz beste egiten du Jokastak eta begiak beren lekuetatik ateratzen ditu Edipok. Edipo itsu dago, beraz, eta Tebastik ihes eginez biderik bide abiatzen denean, ez da inora heltzeko gai. Antigonak aita maite du eta, pasatako guztia pasa bada ere, Edipok bere aita izaten jarraitzen du beretzat. Kostata, baina lortuko du aita konbentzitzea bidea biek batera egiteko; Antigona aitaren gidari izango da, aitak bizirik irauten duen bitartean.

D

DELFOSKO ORAKULUA

Parnaso mendiaren magalean kokatutako leku jainkotiarra da Delfos. Elezaharraren arabera, Piton izeneko suge bat bizi omen zen bertan. Apolok garaitu zuen suge izugarri hura, elkarren arteko borroka batean. Horren ondoren, arroka bat jarri zuten Parnaso mendiaren leku jakin horretan munduaren erdigunearen lekuko baten gisan (beste iturri batzuen arabera, Zeusek jarri zuen arroka bertan, munduaren erdigunea adierazteko). Gainera, santutegi bat eraiki zuten Apoloren omenez sugea bizi izandako lekuan bertan, eta baita Delfosko orakulua ere. Pitonisa edo igarle batek Apoloren etorkizuneko zalantzak argitzen zizkion. Antzina, beste orakulu asko ere egon ziren, baina Delfosko hau izan zen denetan ospetsuena eta mitologia pasarte ugaritan agertzen zaigu, esate besterako Ediporen tragedian bertan.

DIRTZE

Liko Tebasko erregearen emaztea. Inbidia zion Antioperen edertasunari, eta esklabo gisa tratatu zuen. Antiopek ihes egitea lortu zuen eta Ziteron mendira joan zen Anfion eta Zeto semeengana; gertatutakoa jakin zutenean, Zetoren zekor bati lotu zioten Dirtzeren gorputza eta Ziteron mendian arrastaka ibili zuten, hil arte. Hil ostean, Dirtze iturburu bihurtu zen Ziterongo basoan, Tebasen.

DITE

Erromatarrentzat *Dis Pater*. Greziarren Hadesen pareko, hots, inframunduko jainkoa.

E

EDIPO

Delfosko orakuluak Ediporen aitari, Laiori, honako iragarpena egin zion bisita batean: haren semeak hilko zuela eta ondoren bere emaztearekin, Jokastarekin, ezkonduko zela. Jokasta haurdun zegoen jada eta beranduegi zen patuari aurre egiteko. Hilabete batzuen buruan, Laiok Ziteron mendian bakarrik uzten du Edipo jaioberria, ez baita haurra hiltzera ausartzen. Hala ere, nekazari batek haurra mendian ikusi eta erreskatatu egiten du, Korintoko errege-erreginei emateko asmoarekin. Hauek euren seme baten gisan hazten dute Edipo, kozkortu arte. Gaztea guztiz ziur dago Korintoko errege-erreginak direla bere benetako gurasoak, baina etengabe entzuten ditu hori zalantzan jartzen duten zurrumurruak. Azkenean, Delfosko orakulura jotzen du Edipok, zalantza guztiak behingoz argitzeko. Honek argitzen dio egia dela, bere aita hilko duela eta bere amarekin seme-alabak edukiko dituela. Patuak erabat izututa, alde egingo du Korintotik, ez baitie “ustezko” gurasoei minik egin nahi. Handik denbora batera, ba omen zihoan Edipo bere bidean eta bidegurutze batean garrasika hasi zitzaizkion ondoko gurdikoak, irainduz, paretik kentzeko eta bidea libre uzteko esanez. Asko haserretzen du egoera horrek Edipo, hainbeste, non gurdian doazen denak hiltzea erabakitzen baitu. Oraindik ez badaki ere, Laio zen ondoko gurdian zihoazenetako bat. Iragarpenaren zati bat beteta dago, beraz. Geroago, Tebasera jotzen du Edipok, Esfinge izeneko munstro bat omen dago-eta erreinua mehatxatzen. Esfinge hiriaren sarrerara eramaten zuen bidean egoten zen eta igarkizunak proposatzen zizkien hirira sartu nahi zutenei. Igarkizunak asmatu ezean, hil egiten zituen bisitariak. Edipok, ordea, lortu egingo du Esfingeren igarkizuna asmatzea, eta bide batez Tebas salbatzea. Egindakoa saritzeko, Tebasko koroa ematen diote hiritarrek, eta baita erregina alargunarekin ezkontzeko aukera ere. Horrela, Edipo Jokastarekin ezkondu eta Delfosko orakuluak iragarritakoa goitik behera betetzen da. Jainko-jainkosek, egoeraren larritasuna ikusita, izurriteak bidaltzen dituzte Tebasera. Hiritarrek, harrিতuta, ez dakite zer ari den gertatzen. Azkenean, beste behin ere, orakuluak ematen die erantzuna: Laio nork erail zuen jakitean bukatuko da infernua. Edipok beste orakulu batengana jotzen du ondoren eta honek azaltzen dio egia guztia: berak hil zuen gurdiko gidaria Laio zela, bere benetako aita, eta, hortaz, bere amarekin zegoela ezkondu. Jokastak bere buruaz beste egiten du egia guztiaz jabetzean, eta Edipok bere

begiak erauzten ditu. Itsu eta noraezean ibiliko da biderik bide, hil arte, baina Antigona alabak lagunduko dio bide guztian zehar.

ESFINGE

Tebasko hiriaren sarrerako bidean denbora askoz egon zen munstroa. Erdi lehoi, erdi emakume, asmakizunak botatzen zizkien bidaiariei eta, erantzun zuzena aurkitzen ez bazuten, hil egiten zituen.

ETEOKLES

Edipo eta Jokastaren semeetako bat da Eteokles (ikus *Polinizes*).

EUROTAS

Antzinatean Espartako hiria zeharkatzen zuen ibaia.

F

FEBO

Goizero goizero eguna argitzen duena.

H

HERKULES

Erromatarrek euren kulturara txertatutako Greziar heroia (greziarrentzat Herakles). Indarrak eta langilea izateak egin zuten ospetsu, hark eginiko hamabi lanen bidez. *Fen.* 317 bertso-lerroan, hamaikagarren lana aipatzen da: Hesperideen Lorategian urrezko sagarrak lapurtzea. Senekak jarraitzen duen bertsoaren arabera, dragoi batek eta Hesperideek (ninfek) zaintzen zituzten sagarrak eta Herkulesek dragoia lokartarazi zuen, sagarrak lapurtzeko.

HERO

Afroditarren emakume apaiza. Gauero kriseilu bat pizten zion Leandro bere maitaleari, Egeo itsasoa igerian igaro zezan. Ikus *Leandro*.

HESPERO

Arratsaldero arratsaldero, iluntzean, gaua sortzen duena.

I

INO

Kadmoren alaba. Herak, haserre, Ino eta bere senar Atamante sorgindu eta erotu zituen. Hori dela eta, Inok, burua galduta, bere seme Melizertes ur berotan hilko du. Egindakoa ikusita, itsasora egingo du jauzi, bere buruaz beste eginez, bere semearekin batera hiltzeko.

ISMENE

Edipo eta Jokastaren alabetako bat da Ismene, Antigonaren ahizpa eta Polinizes eta Eteoklesen arreba.

ISMENOS

Beoziako ibaia.

J

JOKASTA

Laio eta Jokasta Tebasko errege-erreginak ziren. Seme bat izan zuten, Edipo, baina Ziteron mendian utzi zuten jaioberritan, Delfosko orakuluak iragarritako patu izugarriaren beldurrez (ikus *Edipo*). Ustekabeko borroka batean Edipok Laio hil zuenean (hain zuzen Laio bere aita zela jakin gabe), Jokasta alargun geratu zen. Denbora igaro ondoren, Tebasko hiria Esfinge munstroaren mehatxu eta erailketetatik salbatu zuen gizonarekin ezkondu zen (Ediporekin, Edipo bere semea zela jakin gabe). Bere bigarren senarra eta bere seme-alaben aita umetan mendian utzitako bere seme Edipo zela jakitean, Jokastak bere buruaz beste egiten du.

K

KADMO

Tebas hiriaren sortzailea da Kadmo, Europaren anaia. Arrebaren bila egindako bidaiari amore eman eta orakulu bati kasu eginez sortu zuen Tebasko hiria. Sorrerako mitoan, Kadmok sugea hil zuen eta haren hortzak zabaldu eta erein zituen; sugearen hortzetatik gerrariak sortu ziren; gerrariak elkarren aurka borrokatu zuten eta bizirik irten zirenak izan ziren Tebasko familia ospetsuen sortzaileak.

KASTOR

Poluxen anaia bikia. Zeus eta Ledaren semeak ziren, Taigeto Espartako mendian jaiok.

L

LABDAKO

Kadmoren biloba, Laioren aita, eta, beraz, Ediporen aitona ere bai. Tebasko errege izan zen.

LAIIO

Labdakoren biloba eta Kadmoren birbiloba. Laio Ediporen aita da, baina Delfosko orakuluak haren semeak hilko duela esan ostean, Ziteron mendian bakarrik uzten du Edipo jaioberria. Urte batzuen buruan, aita-semek bidegurutze batean egiten dute topo, elkar ezagutu gabe. Azkenean, bete egiten da orakuluak iragarritakoa eta Edipok aita hiltzen du, momentu hartako Tebasko erregea (ikus *Edipo*).

LAREAK

Erromatar jainkoak, etxeetako zaindariak.

LEANDRO

Leandro Abidosko mutil gaztea zen. Abidos Asia Txikiko kostaldean zegoen, Troaden, Helespontoko (gaurko Dardaneloak, gaurko Marmarako itsasoaren sarreran) itsasartearen hego-ekialdean, itsasarte estuen dagoen tokian. Abidosen parez pare zegoen, itsasartearen beste aldean, Traziako europar aldean, Sestos hiria; Sestosen bizi zen Hero, Afroditararen apaiza. Neska eder horrekin maitemindu zen Leandro, baina bien gurasoek bikotea gaitzesten zuten, ezkutuan elkartu beharra zuten. Herok, zuzi bat pizten zuen gauero bere etxeko dorrean, eta Leandrok igerian zeharkatzen zituen Egeo itsasoak itsasarte horretan zituen bi kilometroak. Gau batean, ekaitzak itzali zuen zuzia, Leandrok ezin izan zuen bidea asmatu eta itota hil zen. Herok Leandroren gorpua itsasertzean ikusi zuenean, dorretik salto egin eta bere buruaz beste egin zuen.

M

MANEAK

Erromatarrentzat maneak etxeko hilen espiritu edo arimak dira.

P

PENTEIO

Agaveren semea, Tebasko errege izan zen denbora batez. Antzezlan honetan aipatzen da nola hil zuen bere amak, piztia bat zelakoan (ikus *Agave*).

POLINIZES

Edipo eta Jokastaren semeetako bat da Polinizes. Eteokles anaiarekin Tebasko boterea urtez urte txandakatzea adostu zuen arren, Eteoklesekin ez zion anaiari tronua utzi nahi izan, Edipok Tebastik alde egin zuenean. Polinizesek, haserre, Argosko tropak (Adrasto Argosko erregearen alabarekin ezkondu zegoen) eramango ditu Tebasera (Tebasko zazpi ateen aurrean, zazpi kanpamentu ezarri zituen, gudalburu banarekin: zazpi Tebasen aurka) eta anaien arteko gerra bati emango diote hasiera, bi anaiek elkar hil zuten arte.

POLUX

Kastorren anaia bikia (ikus *Kastor*).

T

TARTARO

Greziarrentzat, azpimunduaren azpian kokatutako lekua, sufrimendua nagusi den eremua.

TIRTSOA

Dioniso jainkoarekin lotzen den makila. Pinaburu bat eduki ohi zuen goialdean eta huntzorriekin apainduta egoten zen.

TITIO

Gigante bat da, Zeusen eta Elararen semea. Leto (Apoloren eta Artemisaren ama) bortxatzen saiatu zen, baina saio horretan hil zuten (bertsio baten arabera, Apolok eta Artemisak; beste bertsio baten arabera, Zeusek). Tartarora jaurti zuten eta han, hilezkorra zenez, zigor moduan, bi putretzarrek jaten zioten gibela, etengabeko eta betiereko oinazea eraginez.

Z

ZERES

Demeter jainkosa greziararren erromatar bertsioa. Nekazaritzaren jainkosa.

ZETO

Zeus eta Antioperen semea eta Anfionen anaia bikia da Zeto. Jaioberritan, Ziteron mendian utzi zituzten biak, baina baserritar batek hartu eta hazi zituen. Euren ama, Antiope, Dirtze eta Likoren (Tebasko errege eta Zeto eta Anfionen osaba) etxean bizi zen eta Dirtzek esklabo gisa tratatzen zuen, inbidiaz. Antiopek ihes egin eta Ziteron mendira bi semeengana heltzea lortu zuen; Anfionek eta Zetok gertatutakoa jakin zutenean, zekor bati lotu zioten Dirtzeren gorputza eta Ziteron mendian arrastaka ibili zuten, hil arte.

ZITERON

Greziako erdialdeko mendia, Tebasen. Edipo jaioberria mendi horretan aurkitu zuten artzainek, Laiok, Ediporen aitak, umea hiltzeko agindua eman zuenean. Hortaz, Edipo hiltzeko zorian izan zenean bizitza eman zion lekua da. Bere patua madarikaturik eskale itsu gisa alderrai abiatzen denean ere, Edipok Ziteronerako bidea hartzen du hasieran, han bizi edo hiltzeko. Greziar mitologiako beste hainbat mito kokatzen dira Ziteronen, eta horietako batzuen aipamena egiten du, zuzenean edo zeharka, Senekak.

BIBLIOGRAFIA

- Bartolomé Gómez, Jesús [itz.], (2019). *L. Annaeus Seneca: Phoenissae*. [Thebarum Fabula proiektua: Traducción ES.]. Online soilik: <<http://thebarumfabula.usc.es/exist/apps/bibliotheca/Seneca-Phoenissae.xml>>
- Belmonte, M. *et al.* [itz.], (2020). *The Paris Review. Entrevistas (1984-2012)*. Bartzelona: Acantilado.
- Bilbao, Gidor, (2002). *Latin-literaturarako sarbidea. Idazleak eta idazlanak*, Bilbo: UEU.
- Bilbao, Gidor, *et al.* (2020). *Oinarritzko hiztegia. Latina - Euskara*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua & Vox-Spes.
- Erro, Angel, (2015). *El libro de la mitología clásica*. Madril: Ilusbooks Illusion Illustrated.
- Gaarder, Jostein, (1991). *El mundo de Sofía*. Oslo: H. Aschehoug & Co.
- Grimal, Pierre, (1989). *Diccionario de mitología griega y romana*. Bartzelona: Ediciones Paidós Ibérica.
- Fitch, John G. [ed. eta itz.], (2002). *Seneca, L.A. Tragedies, Volume I: Hercules. Trojan Women. Phoenician Women. Medea. Phaedra*. Cambridge: Harvard University Press.
- Horman Poster konpainia, (2021), *Antigone edo ezetzaren beharra* [gidoi argitaragabea].
- Jaka, Aiora (2013). «Itzultzaileon kontzientzia feminista... ala matxista?», *31 eskutik*. Online soilik: <<http://31eskutik.eizie.eus/2013/10/21/itzultzaileon-kontzientzia-feminista-ala-matxista/>>. [azken kontsulta: 2022/05/25].
- Lasheras Pérez, Amaia, (2021). «'Bere'/'haren'/'beraren'. Noiz erabili horietako bakoitza euskara estandar zainduan?», *Administrazioa Euskaraz* 116: 31.
- Legarreta, Maitane, (2022). «Horman Poster konpainiaren 'Antigone edo ezetzaren beharra' antzezlanak irabazi du Donostia Antzerki Saria», *Gaztezulo*. <https://www.gaztezulo.eus/albisteak/horman-poster-konpainiaren-antigone-edo-ezetzaren-beharra-antzezlanak-irabazi-du-donostia-antzerki-saria> [azken kontsulta: 2022/05/25].
- Lertxundi, Anjel, (2019). *Itzuliz usu begiak*. Irun: Alberdania.
- Luque Moreno, Jesús [itz.], (1979). *Séneca, L. A. Tragedias I*. Madril: Gredos.
- Newman, Clay, (2014). *El prozac de Séneca*. Bartzelona: Penguin Random House Grupo Editorial.
- Pérez Gómez, Leonor [itz.], (2012). *Séneca, L. A. Tragedias completas*. Madril: Cátedra.
- Sapota, Tomasz & Slomak, Iwona (2022). «'Phoenissae', 'Phoenissa', 'Thebais': Title of Seneca's Phoenician Women», *Philologia Classica* 15: 88-95.
- Simoës, Manuel, (2011). *García Lorca e Manuel da Fonseca: dois poetas em conforto*. Lisboa: Assírio & Alvim.
- Steiner, George, (2013). *Antígona: la travesía de un mito universal por la historia de Occidente*. Bartzelona: Gedisa.
- Ugarte, Martin, (1984). «Iritziak», *Hots* 12:7.